

HERRI eta IRRI

x. amuriza

2.MAILA/EUSKARA BAT



ELKAR

HITZABURUA

HERRI eta IRRI

x. amuriza

2.MAILA/EUSKARA BAT

ELKAR

**Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren onespena
jasoa (1983-5-10).**

© ELKAR S.A.
Esterlines, 10 - Donostia

Depósito Legal: NA. 596-1983
ISBN 84-7529-069-8

Irarkola: Gráficas Lizarra, S. L., Ctra. de Tafalla, Km. 1 – Estella (Navarra)

HITZAURREA

HERRI ETA IRRI herrietako berrien irria da. Euskal Herriko herriak. Sail hau EGIN egunkarian agertu zen 80ko Irailaren 13tik 81ko azaroaren 21 arte.

Jendeak pozik irakurtzen zuen. Horregatik orain denak batera argitaratzen ditugu.

Liburu honetan BIGARREN MAILA eta EUSKARA BAT dauzkazu. Beste mailak ere argitaratu dira, edo argitaratuko dira. Mailak edo mailaketa hau ez da guztiz zehatza. HERRI ETA IRRI ez da Euskal Metodu bat. Baina ahalegin bat egin nuen metoduen mailaketara hurbiltzen. Ahalik gehien hurbildu. Baina berriak, gertaerak, ateraldiak eta pertsonaiak bortxatu gabe. Horregatik BIGARREN MAILA ez da beharbada guztiz egia. Berdin EUSKARA BAT ere.

Denbora luzez, HERRI ETA IRRI mailakaturik egiten nuen, lehen mailatik alfabetatzeraino. Hori gehienez nahiko zaila gertatzen zen. Beheko mailak errespetatzeko, sarritan kontakizuna gehiegi bortxatu behar zen. Horregatik, garai batetik aurrera, bi maila bakarrik egiten nituen: EUSKARA-BAT eta EUSKARA-BI. EUSKARA-BAT hau euskara erreza da. Horregatik jarri dugu bigarren mailarekin batera. Beharbada bigarren maila baino zailtxoagoa izango da.

Liburu honetan agertzen diren denbora aipamenak ez dira liburuaren argitalpenekoak, egunkarian agertu zirenekoak baizik. Kontuan eduki hori, berri okerrik ez ateratzeko.

ABADIÑO - BIZKAIA

BERMEOKO ZOROETXEAK

Gizon batek edanari eman zion. Etxean sobra zegoen eta Bermeoko zoroetxera eraman zuten. Han maite plantak egiten zituen familiak:

— Ai gure gizona! Hemen geratu behar orain.

Horrela hizketan ari ziren atean. Zoroetxeko ardura-dunak esan zuen:

— Beno. Ordua heldu da eta zein da hemen geratu behar duena?

Gizonak esan zuen:

— Hauek denok ni baino zoroago daude, baina neuk geratu beharko dut.

MOZKORRA ETA ESKALEA

Don Ramon gizon errespetatua zen Abadiñon. Behin mahats parratik jausi eta hanka bat hautsi zuen. Pasko eskalea estankura etorri zen eta esan zuen:

— Enteratu al zarete? Pasko jausi balitz, mozkortuta esango zen. Hura esnea edanda jausi al da, ba?

KRISTOBAL ETA AKERRA

Kristobal Aramaio aldetik Abadiñora etorri zen. Maizter jarri zen Gazteluko auzunean. Ondoan, mugakide, «Akerra» zeukan. Akerrak esan zion:

— Etorri al zara Gaztelura?

— Bai. Nonbait bizi behar da.

Akerrak mugak erakutsi eta esan zion:

— Ikusten al dituzu hau eta hori eta hura? Hortik atzera, denak neureak dira.

Kristobalek orduan esan zion:

— Koino! Arlo handiak dituzu, Markina eta itxasoa ere hortxe parean daude eta.

BIXENTE BIDAGINA

Bixente bidagina zen, baita talentu argikoa ere. Poliki bizi zen, lanean lehertu gabe. Inguruan jende batzailea edo pilatzea maite duena ikusten zuen. Bixentek esaten zuen:

— Utzi bakean. Denak ez dituzte batuko, geuk ere apur bat behar dugu-ta.

SANTI GAZTELU ETA APAIZA

Abadiñoko Santi Gaztelu jokolaria eta liberala zen. Karlistadan gaude. Santi goizaldean etxeratzen zen sarritan. Eliza ondotik pasatu behar zuen. Behin herriko apaiza aurkitu zuen. Eguna laster zetorren eta Santik esan zion:

— Egunon daukazula, Don Kasildo.

Apaizak erantzun zion:

— Bai, hementxe, Santi. Hagineko minez zorutzen nabil, atzera eta aurrera.

Santi etxera joan zen. Handik egun batzutara ere berdin goizaldean. Egunon, hagineko mina eta horrela. Santik pentsatu zuen:

— Hain min luzea? Honek zeozer dauka hemen.

Kanposantu ondoan zain geratu zen. Apaiza ere kanposantu ondoan geratu zen. Gurdi bat etorri zen. Apaizak kanposantuko atea ireki eta armak barrura sartu zituzten eta sakapean gorde. Santi liberala zen eta salatu zuen. Biharamonean etorri eta armak han aurkitu zituzten. Apaiza karlista gogorra zen. Bergaran preso sartu zuten. Orduan behintzat ez zituzten Puertoraino eramaten.

MORTZILLA MORTZILLANTE

Luzio agoazila famatua da Abadiñon. Neguan txerri *hiltzeak izaten dira. Luziok bazekien hori. Txerri hiltzailearen atzetik joaten zen. Mandatu edo abisu guztiak or-*

duantxe ziren: udaletxekoak, medikuarenak etab. Oletxen esaten zioten:

— Hemen gure Luzio! Jango al duzu pare bat odoleste?

Gero Intxalde, Korteta, Gatzaieta, Santirene, Txakurzulo, Urkiola eta azkena Amaitermin, ia Otxandion. Etxe guztietan eskaintzen zioten pare bat odoleste eta Luziok jan. Egunean hogeitamarren bat odoleste. Gero herrian galdetzen zioten:

— Zer moduz hortik goitik?

Eta Luziok:

— Mortzilla mortzillante, vamos palante.

AGUREAK LARRU ZURITAN

Luziok seme bat Venezuelan zeukan. Hamar urtetara itzuli zen eta behin Villa eta biak Lekeitioko hondartzara eramán zituen. Biak laurogei urteruntz. Amerikanoak bainu prakak ere alkilatu zituen.

Luzio eta Villa txabolatik irten zirenean, hura zuritarsuna. Neskatilak hondartzan futboleán zebiltzan. Luzio eta Villa ere han sartu ziren. Haiek ziren figurak, hura zen katxondeoa.

— Jo baloia! —esaten zion Luziok Villari.

— Ez dut batere harrapatzen —erantzuten zuen Villak.

— Ba, egon geldi, baloiak jo arte.

— Laster egongo gara, bai, geldi, kanpaiak jotzen duenean.

Hil kanpaia esan nahi zuen. Gero igeri ere hasi ziren, flotagailua puztuta.

— Seme amerikanoa edukitzea zer den! —esan zuen Villak.

Gero Villa erori eta ur zurruta.

— Hi! Hau gazi zegok! (dago)

Luziok orduan esan zion:

— Zer, ba? Behiaren errapea zela uste al huen? (zenuen)

AHETZE - LAPURDI

ARGIAREN ONDOREN GALERNA

Mattinen etxean hiru lagun zetozen ota ebakitzera. Andreak haientzat bezperan oilasko bat prestatu nahi zuen. Mattini gazta eta olioak ekartzeko agindu zion andreak. Mattin 7etako mezara joan zen igande goizean. Mezatik irten eta gazta eta olioak erosi zituen. Mutil bat pilotan ikusi zuen eta apustua egin zuten. «Goizekoa» jokatu zuten pilotara eta Mattinek galdu, askoz zaharragoa baitzen.

«Goizekoa» egitera badoaz eta hogeitabana kopa «Izarra» edaten dute. Tabernan dagoen guztia edaten dute. Gero Arbonara doaz hamaiketako egitera. Mutilaren autoan doaz.

Gazta eta olioak non daude? Bizikletan utzi ditu Ahetzen. Arbonatik Donibanera doaz. Hemen kantatzen hasten dira, baina ez diete uzten. Donibanetik Urruñako festetara. Egun osoa edanean. Arratsean etxera abiatzen dira. Mutila autora doa, baina polizia batek ez dio utzi nahi, mozkor ikusten baitu.

— Fidatzen al zara honekin? —galdetzen dio Mattini.

— Ene buruarekin bezainbat bai —erantzuten dio Mattinek.

Arratseko hamarretan etxeratzen da Mattin. Bizikleta eskuan darama eta gazta eta olioia bizikletan. Andrea biziki haserre dago. Auzoko bat pasatzen da eta Mattini galdetzen dio:

— Andrea bizi al da?

— Ez du hitzik egiten —erantzuten du Mattinek.

Biharamonean, astelehenean, lagunak ota ebakitzera datoz.

— Zer eguraldi izango ote dugu? —galdetzen du batek.

— Ez dakit —esaten du Mattinek—. Gure etxean behintzat galerna duk.

BEHIAREN MIRAKULUA

Mattinek behi bat erosi zuen. Begibakarra zen, baina zazpi urte bakarrik omen zituen. Gero Mattinek behi haren ume bat ikusi zuen beste etxe batetan. Honek hamaika urte zituen. Hurrengo ferian behi «gazte» haren saltzaileari esan zion:

— Kaixo! Zure behia Ama birjina baino gehiago da. Amak zazpi urte eta umeak hamaika.

ARIATZA - BIZKAIA

PRESKU ZAHARRA ETA SAN JOAN

Gregorio Zarrabeitia edo **Presku Zaharra** duela hogeita hamar urte hil zen. Behin apaiz bati entzun zion:

— Nire zeruko partea merienda baten truke salduko nuke.

Apaiza izan eta hori esan? Gehiago ez zuen elizarik zapaldu. Jainkorik ere ez zuen nahi, baina San Joan bai.

Gaztetan iheltseroa zen eta Gaztelugatxeko San Joanen ermitan ari zen lanean. Ermita hori itxasoan dago, Bakion. **Presku Zaharrari** txapela erori zitzaion. Poliki-poliki planeatuz, itxasora erori behar zuen. Eta esan zuen:

— San Joanek potrorik baldin badauzka, ekar dezala hori hona.

Eta txapela berriro etorri zen. Edo haizeak ekarri zuen. Geroztik Gaztelugatxeko San Joan zen **Presku Zaharra**-ren erlijio bakarra.

ZERTARAKO KONFESATU

Presku Zaharra hiltzen zegoen. Ez zuen inola ere konfesatu nahi. Apaizak esan zion:

— Ea Gregorio. Jainkoaren aurrera garbi joateko, komeni da kontuak egitea.

Presku Zaharrak ohetik esan zion:

— Zuri kontua eman? Neu noa zu baino lehenago eta neuk eramango diot.

Azkenean beste apaiz bat ekarri zioten, esanez:

— Hau Gaztelugatxeko San Joango apaiza da.

Halaxe lortu zuten hura konfesatzea. **Presku Zaharra** urtero joaten zen Gaztelugatxeko San Joanera. Hil baino urte bi aurretik ere bai.

HIL DA ANTONIO CALLE

Presku Zaharra neguan erropa arin-arinaz jazten zen. Eta udan dena estalirik.

— Eguzkirik barrura ez sartzeko —esaten zuen.

Bidagin sartu zen Diputazioan. Orduan landoiak edo karroak zaldiekin ibiltzen ziren. Behin landoi bat argi gabe zetorren gauez. **Presku Zaharrak** alto bota zion:

— Ez dakarzu argirik eta bi pezetako multa.

Landoi barrutik norbaitek esan zuen:

— Soy el gobernador de Bizkaia.

Eta bidaginak:

— Aunque seas el gobernador de San Joan de Gaztelugatxe.

Eta multa kendu zion. Biharamonean lanetik bidali zuten. Benetako gobernadora izan zen. Gero Diputazioko lehendakaria hil zen. Antonio Calle zuen izena. Norbaitek **Presku Zaharrari** esan zion:

— Txo! Ba al dakik nor hil den? Antonio Calle.

Orduan **Presku Zaharrak** erantzun zuen:

— Hil da Antonio Calle? Bego ifernuan pralle eta han-txe egon dalle (dadila).

ARRASATE - GIPUZKOA

ATXITAREN ERLIJOAK

«Atxita» esaten diote. Hirurogeita hamabiren bat urte ditu. Honek esaten du gaztetan onena «harenero» dela. Harenduna edo harena daukana, alegia. Eta zahartzaroan zein erlijio? Atxitak esaten du:

— Zahartzaroan onena erlijio denak hartzea, baten batek huts egiten badu ere.

Behin Atxita medikuarengana joan zen. Medikuak errejimena ezarri zion. Baita zerrenda luzea jarri ere. Atxitak esan zion:

— Beno, datorren astelehenean hasiko naiz hau egiten.

Handik hilabetera berriro medikuarengana joan zen Atxita. Ez zuen errejimenez bat ere egin. Eskaileretan medikuak ikusi zuen eta galdetu zion:

— Zer, Jose Mari! Zer moduz?

— Ondo! —erantzun zuen Atxitak.

— Orduan segi berdin! —agindu zion medikuak. Eta Atxita etxera.

ATXITAREN KONFESIOA

Atxita konfesatzera joan zen.

— Ave Maria purisima! —esan zuen eta isilik geratu zen.

— Esaidazu, ba, bekatu bat —agindu zion apaizak.

— Zeuk esan behar duzu —esan zion Atxitak. Apaizak galdetzea edo laguntzea nahi zuen.

— Ea, ba —hasi zen apaiza—. Zer moduz andreakin?

— Ondo.

— Haserririk?

— Ez, jauna.

— Beste andreakin?

— Hitz asko, baina egin ezer ere ez. Hara, jauna. Nire bekatua haxe da: edan egin behar.

— Zenbat?

— Ahal dudan guztia.

— Tira, ba. Hori baino gehiago edaten ez baduzu, barkatua zaude.

PARTIDU BIKAINA

Arrasatetar bik apustua egin zioten elkarri. Zertan? Esku pelotan. Partidua jokatzeko eguna eta ordua ipini zuten. Pelotalekura joan ziren. Sakea zeinek atera, kara

ARTEAGA - BIZKAIA

MAXIMO URIARTEKO

Maximo Uriarteko ez zen edonor Arteagan. Mutikoa zenean, gaztaina marroan egin zituen zortzi egun. Zuhaitz zaharrek barrua hutsik edukitzen dute, batzutan oso hutsune haundia. Zuhaitz marroa da hori. Maximo mutikoa hantxe gorde zen zortzi egunetan. Inork ezin izan zuen topatu, bera agertu arte. Zer jaten ote zuen? Ezkondu zen eta han bizi ziren.

Behin neguko gaua zen. Oso hotz egiten zuen. Emaztea ohean sartu zen. Maximo ere sartu zen. Baina ez zen, ba, koltxoiaren azpitik sartu? Emaztearen bila hasi zen. Pisua sentitzen zuen, baina ez zuen topatzen. Eta hots egin zuen:

- Non arraio zaude, andrea?
- Ni hemen —erantzuten du andreak.
- Zer arraio darabilzu zuk?

Hala zebiltzan, bata koltxoi gainetik eta bestea azpitik. Maximo ernegatu zen eta indar egin zuen. Emaztea ohetik behera erori zen. Orduantxe ohartu zen koltxoi azpian zebilela.

TXERRIAREN HANKA ETA EMAZTEARENA

Maximoaren etxean txerria hiltzen ari ziren. Maximo eusten eta emaztea odola hartzen. Txerri hiltzaile larritu zen eta esan zuen:

— Eutsi! Txerri badoa!

Maximok hotsegin zuen:

— Hau ez da inora joango!

Txerri hiltzaileak:

— Ez da joango, baina badoa.

Maximoaren emazteak txilio egin zuen:

— Ai! Zer dabil hemen?

Txerriak mahaitik ihes egin zuen eta Maximo andreari hankatik heldurik geratu zen. Txerri hilketak goizean goiz egiten ziren, erdi ilunetan. Maximok emaztearen hankari heldu zion, txerriarena zelakoan. Gero esan zuen:

— Seinalea batetik bestera alde handirik ez dagoela.

Emazteak esan zion:

— Lo ere berarekin egin orduan.

OILARRA ETA OTSOA

Maximoren buruhauste handia etxeko oilarra zen. Etxera etortzen zen eta oilarrak aurre ematen zion. Lumak harrotzen eta mokoa zorrotzen zuen. Gizona larri

ibiltzen zen. Oilarrak jan behar zuen.

Amerikan, ordea, Maximok otsoa ito omen zuen. Artzain zegoen mendian. Hotz handia egiten zuen eta izotz gogorra ere bai. Maximok biboteak hotzez gogorturik zeuzkan. Bibotea biguntzen ari zen eta hura ustekabea. Otso batek hanka biak paparrean ipini zizkion.

— Zer behar duk? —esan zion Maximok.

Eta otsoari lepotik heldu eta bertan ito zuen. Etxeko oilarra otso hura baino gogorragoa ote zen?

NON FRANTZISKO

BERNARDINO

ATAUN - GIPUZKOA

DON FRANTZISKO

Don Frantzisko duela hirurogeiren bat urte hil zen. Handia zen. Behin errezuak egiten ari zen eta Koxka gurdiarekin zetorren. Apaizak:

— Zer iruditzen zaizu, Joxe Antonio? Santu egingo al naiz ni?

Koxkak erantzuten dio:

— Santuak zimur-zimur egoten dira. Zuk tripa handia daukazu santu egiteko. Aida!

KONFESIOAN

Agoazil zaharra eta beste bat konfesatzera datoz. Agoazila astero konfesatzen da. Lehenbizi bera dator. Don Frantziskok esaten dio:

— Orain ere hor al haiz? (zara). Hi noiznahi hator (za-

toz). Ken eta betor bestea. (Betor: venga).

Bestea Rezola da. Konfesatzen hasten da eta apaiza loak hartzen du. Esnatzen da eta galdetzen du:

— Non geunden, Rezola?

— Behiengo barrutian —esaten du Rezolak.

Toki baten izena da Behien eta ganaduekin maldizioak bota zituela esaten ari zen Rezola.

ARE HORTZAK

Ataundar batek pekatu hau konfesatu zuen:

— Area ostu.

Area lur tresna bat da. Hogei hortz dauzka eta ganaduekin erabiltzen da. Don Frantziskok esaten dio:

— Nola baina? Horren behar handia izaten da base-
rrian!

Orduan gizonak esaten du:

— Baina ez dut osorik ostu. Hortz bat hemen eta beste bat han harrapatu dut.

Don Frantziskok:

— Oraintxe jarri didazu lanbide estua. Zer penitentzi jarriko dizut nik? Etorri gaur zortzi. Ordurako estudia-
tuko dut.

Handik zortzi egunera Don Frantziskok esan zion:

— Ez daukazu karga handirik. Hortz bat gora behe-
ra, areak berdin lan egiten du.

MARMATILA

Don Frantziskok Berreñori galdetu zion:

— Aizu, Berreño! Nola dute izena hor sasia dauden horiek?

— Lizarra, arantze beltza, elorria... —dio Berreñok.

— Eta hori zer da? —apaizak.

— Marmatila.

— Zer esan duzu? —galdetzen du apaizak.

— Marmatila, jauna.

Handik egun batzutara Berreño konfesatzera joan zen. Konfesioa bukatu eta bazihoan. Don Frantziskok deitu eta esan zion:

— Aizu, Berreño! Nola zen zuhaitz hura?

— Marmatila, jauna —erantzuten du Berreñok.

Orduan apaizak konfesalekuan, denek entzuteko moduan:

— Ah bai! Marmatila, marmatila, marmatila...

GAITZARI AURRETIK KASU

Ataundar bat bizikletan joaten zen lanera. Goiz hartan elurra zen eta amari esan zion:

— Elurra da eta baja hartu behar dut.

Amak medikuari hots egiten dio. Gizona, ikuiluko

lanak egin, talo pila bat jan eta ohera sartzen da. Medikua etorri zen, ikusi zuen eta esan zion:

— Hori, hori, gizon! Gaitzari aurretik hartu behar zaio kasu.

SANANTON ETA ZALDIA

Ataundar bati «Sananton» esaten zioten. Sananton famatua zen. Behin zaldiarekin errotara irten zen. Baina tabernan egon zen berandu arte. Errota itxi zuten. Sanantonek lagun bati esan zion:

— Joxe, artoarekin errotara atera naiz. Ekarriko al didazu hirina errotatik?

Joxe zaldia hartu eta errotara joan zen. Bueltan hirina eta zaldia eman zion Sanantoni. Sananton bete-betuegina zegoen. Zaldia aurretik bota zuen eta berak isatzezik heldu zion. Horrela etxera abiatu zen. Gauerdia pasaturik zegoen. Ilun zegoen. Mutil gazte bat erromeriatik etxera zetorren. Bat-batean mutilak entzun zuen:

— Bat, bi, hiru.

Mutila bildurtu zen eta bidean baztertu zen. Berriro ere «bat, bi, hiru» entzuten zuen. Sananton zen. Hogeita hamar duro zilarrezko zeuzkan. Haiexek kontatzen ari zen Sananton, behin eta berriz. Eta zaldia? Zaldia alfafadian zegoen. Arto zakua bizkarrean zeukan eta alfafa ederki jaten zuen. Auzoko alfafa zen, baina zaldiak berdin jaten zuen. Sananton diruak kontatzen eta mutil gaztea bildurrez.

MOZKOR BAINA EZ LO

Otsaila zen eta gaueko hamabiak ziren. Hotz handia egiten zuen. Sananton kanposantu óndoan etzana zegoen. Zaldia ondoan zegoen. Nikolasek ikusi zuen eta bizkarran hartu zuen. Bere etxera eraman zuen, kanposantu gainean. Sukaldean eserita utzi zuen Sananton eta zaldia kanpoan. Nikolasen etxean artzain bat zegoen. Nikolasek artzainari esan zion:

— Zaldi hau deskargatu behar diagu (dugu).

— Hori neurea da gero! —hotsegin zuen Sanantonek. Jaiki zen baina berriro blaust erori zen. Zauritu egin zen. Berriro eser erazi zuten eta Nikolasek eta artzainak zaldia deskargatu zuten. Sanantonek piz erreka bat egin zuen aulkian behera. Gero artzaina ikusi zuen. Nikolas zela pentsatu zuen eta esan zion:

— Primo Tximel, andre ederra daukazu.

SUGEA ETA HANKAMOTZA

Zapatari bat hankamotza zen. Egurrezko hanka zeukan. Behin bidean sugea ikusi zuen. Sugeak mihiztoa ateratzen zuen. Zapatariak egurrezko hanka eman eta esaten zion:

— Helduiok horri!

AULESTIA - BIZKAIA

SORGINAK ETA ESNEA

Aulestiko Zubero auzategian, Jose Uriarte bizi zen. Agure zaharra zen eta sarritan laminak aurkitzen omen zituen bere soroan. Gerritik gora emakumezkoak eta gerritik behera piztiak. Egun batez, Josek laminei esan zien:

— Alde hemendik!

Laminek erantzun zioten:

— Behi horrek bikiak egiten baditu eta biak bigantxak badira eta behiari esnerik eraisten ez badiozu eta bigantxa horrekin lanera etortzen zarenean, orduantxe alde egingo dugu.

Behiak bikiak egin zituen eta biak bigantxak ziren eta Josek ez zion behiari esnerik eraitsi. Baina egun batez, Markinako feriara joan zen eta andreak esnea eraitsi zion. Biharamonean Jose Zaharra sorora joan zen eta laminei esan zien:

— Hemen nator ni. Oraindik hemen al zaudete?

Laminek erantzun zuten:

— Baina esnea eraitsi zenion.

Josek orduan esan zuen:

— Andreak eraitsi zion, baina burutik behera jaurtiki nion.

OTSOA ETA AZERIA

Aulestiko Zubero auzategian, Legarra ondoan, putzu bat dago. Putzu hartan opil handi bat bezala ikusten zen ilargia. Otsoak azeriari galdetu zion:

— Nola hartu ahal da opil eder hori?

Azeriak erantzun zuen:

— Horko ur guztia edanda.

Otsoa ura edaten hasi zen. Baina ipurdiko zulotik irteten zitzaion.

Orduan azeriak zipotz bat sartu zion ipurdian. Otsoak ur guztia edan zuen. Putzua hustu eta ilargia zeruan zegoen. Putzuan lupetza bakarrik. Otsoak esan zuen:

— Zer gertatu zaio opil eder horri?

Azeriak erantzun zion:

— Zuk aho handia daukazu eta irentsi egingo zenuen.

Legarran gari jotzea zen. Gari jotzaileak afaltzen ari ziren. Leiho batean gatzatua zegoen. Azeriak garaunak gatzatuz zuritu zituen. Otsoa heltzen da eta azeriak zipotza ateratzen dio. Orduan ura eta ura irteten zaio ipurditik.

Gari guztiak uretan ipintzen ditu. Gari jotzaileek otsoa erdi hilik uzten dute. Otsoak eta azeriak mendiruntz hartu zuten. Otsoa hezurak hautsirik zegoen eta azeriak bekokia zuri zeukan. Nor ote dago gaizkiago?

Agure bati galdetu zioten eta hark erantzun:

— Hezurak hautsirik dagoena gaizki dago. Baina garaunak kanpoan dituen gaizkiago.

Horrela otso gaixoak azeri sanao bizkarrean eraman behar izan zuen. Bidean otsoak galdetu zion:

BAIGORRI NAFARROA BEHEREA

BATIXTA ZERRIAREKIN

Batixta zerriarekin zihoan. Bere lehen auzoarekin topo egin zuen eta solasean (hizketan) hasi ziren.

— Nora zoaz, Batixta?

— Aketzera, aketzera.

Aketza zerri ar handia da. Etxe guztietan ez da aketzik izaten eta horregatik esan zuen hori. Auzoak berriro esaten dio:

— Baina zerri hori ordotza duzu.

— Zer egingo dugu, ba? —esaten du Batixtak—. Ez daukagu haxe besterik etxera eramateko. (Zerria kontrabandokoa baitzen).

ODOLKIEN SUA

Bentaberri eiherezain (errotari) txikia eta guztiz pobrea zen. Behin etxe batera gonbidatu zuten, txerria hiltzeko egunean. Ohitura zen bezala, arratsaldean musean hasi ziren. Buelta bat galdu eta Bentaberri kanpora irten zen. Piz egin zuen eta berriz barrura zihoan. Baina bidean gauza eder bat ikusi zuen. Odolkiak zeuden han. Jaun biroa (odolki mota bat) ere han zegoen odolkien artean. Bero beroa zegoen eta kea botatzen zuen. Bentaberri tentatu zen. Inork ez zuen ikusten eta jaun biroa sakelean sartu zuen. Berriz musean eseri zen. Lagunak ohartu ziren haren sakeletik kea jalgitzen (irteten) zela. Batek oihu egiten dio:

- Bentaberri! Bentaberri! Sakelean su!
- Erre bedi! —erantzuten du Bentaberrik.

HARAGIA SAKELERA

Behin, Urdos Manexenean, bonbet batean, Domingo Etxezahar gertatzen da. Etxezahar hau jale handia zen, bai eta edalea ere. Jan zuten eta Etxezaharrek besteen hondarrak ere jan zituen. Bete-bete egin zen. Baina, hala ere, haragi puska bat sakelean sartu zuen. Jean Louis Etxebertzekoak baso bat ardo bota zion sakelera eta esan zion:

- To! Hori ere ez duk (da) idorrik jateko egina.

BASURDEAREN URTEAK

Baigorriko ehiztari bat ostatuan oihuka sartu zen. Zer gertatzen zen? Basurde zahar-zahar bat hil omen zuen.

— Zenbat urte dauzka, ba? —galdetzen diote.

— Laurogei urte.

— Nola dakik laurogei urte dauzkala?

— Nola dakidan? Buztanak zortzi markatzen zuen eta azpiko zuloak 0 (zero).

BERA - NAFARROA

SOLDADUA TXAKUR BIHURTU

Filipe nekazaria zen eta Erdi Haroko burua zeukan.
Behin esan zuen:

— Soldadu desertore bat ikusi nuen. Goardiak atzetik zetozen. Orduan soldadua txakur bihurtu zen eta mendian gora ihes egin zuen.

Norbaitek galdetu zion:

— Ez al zizun bildurrik ematen?

Filipek erantzun:

— Bildurra? Zenbat aldiz ikusi nuen neure aita gauza bera egiten!

Filipen benetan sinesten zituen gauza horiek.

PORTUOLA

Portuola baserrian esnea leihoan uzten zuten gauez. Goizean beti kaikua erdi husturik egoten zen. Zer edo nor zen zaindu, eta katu batek edaten zuen.

Behin katuari zart eman zioten eta biharamunean auzoko atsoa ikusi zuten eskua bendaturik.

LAMIOSIN

Lamiosingo errekan lamia batek urrezko orrazia eman zion emakume bati. Eta esan zion:

— Bururik itzuli gabe etxera joaten bazara, orrazia zuretzat.

Lamia atzetik kantatzen hasi zen. Emakumeak ezin utsi eta atzerantz begiratu zuen. Orduan orrazia eskutik desagertu zen.

XUDUR

Gizon batek sudur handia zeukan eta «Xudur» esaten zioten. Harotza zen eta katabutak ere egiten zituen. Katabut bat egiten zuenean, hantxe barruan egiten zuen lo. Herriko mutikoak begira egoten ziren.

Xudurren emaztea Ttipitto konfiteroaren etxean nekame zen. Ttipitto aberatsa eta zikoitza zen. Hil zen eta Xudurrek esan zuen:

— Alde horretatik ezin etorri, ez haize onik, ez gizon ondaturik. Eta nik badakit hori, ni ere hortik etorria bainaiz.

Xudur lan zail bat egiten ari zen errota batetan. Mailuka eta maldizioka ari zen. Apaiza pasatu zen eta esan zion:

— Martin Jose! Basta de majaderías!

Eta Xudurrek:

— Orduan jaitsi zerori eta konpondu.

BERRIATUA - BIZKAIA

ENTSALADA MERKEA

Gerra ondoan olioa oso garesti zegoen. Manuel Arraia-
ren alabak entsalada jarri zion aitari. Baina ozpina bo-
tatzeko atzamar txikia eta olioa botatzeko atzamar lodia
erabiltzen zuen. Manuelek esan zuen:

— Agustina! Nolako entsalada da hau?

Alabak erantzun:

— Zer ba? Ez al dago ona?

Orduan Manuelek esan zuen:

— Honela jartzekotan, ortuan (baratzean) bertan jan-
go ditut.

EZ DIRU EZ MEZA

San Anton egunez, baserritarren meza izaten da.
Aurreko jaian, udaletxean batzarra egiten zen, progra-
ma egin eta meza dirua biltzeko.

Simon «Metro» berandu heldu zen. Bezperan behi bat hil zitzaion. Idazkariak galdetzen dio:

— Zuk zer diozu, Simon, San Antonen mezarako? Metrok orduan erantzun zuen:

— Zer San Anton eta zer San Obispo! Txarra baino txarragorik ez da etorriko. Gurean kolpean bat doa. Han ez dago mezarako dirurik.

TELEFONO BARREGARRIA

Mutil bat telefonoan barre eta barre ari zen. Dirurik bota gabe, luzaro zegoen telefonoan barreka. Taberna-ko nagusiak esan zion:

— Zertan ari zara zu? Tranpa egiten ari zara!

Mutilak erantzun zion:

— Bai zera! Markinako mutilik ederrena nor den galdetu eta begira zer dioen: tú-tú-tú!

GARIAK ETA SARIAK

Gorozikako auzategian, etxe batek bakarrik zeukan garia. Apaizak Asterrikatik bedeinkatu zituen etxe hartako gariak. Gero saria eman behar izaten zen, oilaskoak, arraultzeak edo zerbait.

Baina etxe hartatik ez zetorren ezer eta apaizak eska-

tu. Etxeko nagusiak esan zion:

— Gariak noiz bedeinkatu dituzu, bada?

Orduan apaizak:

— Bai, gizona! Asterrikatik bedeinkatu nituen. Zuen gariak bistan daude handik.

Nagusiak esan zion:

— Neuk ere Berriatu aldeko leihotik bota nituen oilas-koak. Ez al dira heldu?

DIMA - BIZKAIA

ILARGIA ERLOJU

Mendiko etxe batetan ez zegoen erlojurik. Ilargitik ordua kalkulatzeko zuten. Gizonak ilargia haitz gainean ikusi zuen. Igandea zen eta elizara joan zen, goizeko seiretako mezara. Elizpean eserita zegoen, erdi lo. Kanpaiak daunnn jo zuen. Gizonak pentsatu zuen:

— Bostak eta erdiak.

Erdi lo geratu zen eta berriro ere daunnn entzun zuen. Gizonak esan zuen:

— Zer arraio jotzen du horrek?

Berriro erdi lo eta berriro ere daunnn. Ordu bata eta erdiak ziren. Etxera joan eta haritz adarra basotik ekarri zuen. Hura kimatu, ganaduentzat hostoa egin, kortako (ikuiluko) lanak egin eta berriro elizara joan zen.

Bidean zihoan eta ilargia nahiko igona zen. Gizonak begiratu eta esan zion:

— Gaizki gabilitza. Zuk ere kanpaia jotzen ikasi beharko duzu.

EMAZTE SENAR HILTZAILEA

Dimako etxe batetan, neska bat bakarrik bizi zen. Noizbait ezkondu zen eta poliki bizi ziren. Baina laster hasi ziren haserreak. Emazteak laratzaren burdinaz senarra jo eta bertan hil zuen.

Bigarrenez ere ezkondu zen. Lehenengotan poliki, baina gero bigarren senarrari ere berdin egin zion. Hirugarrenarekin ezkondu zen eta hari ere berdin egin zion. Su ondoan laratz burdinaz jo eta hil.

Emakume hari «Hazmotxa» esaten zioten. Laugarrenez ezkontzera zihoan. Senargaiari lagun batek esan zion:
— Hazmotxarekin ezkontzen al haiz? Horrek fama txarra zeukak (dauka) gero!

Senargaiak ez zion lagunari kasurik egin eta ezkondu ziren. Lehenengotan hauek ere poliki bizi ziren. Baina emaztea hasi zen matrakan. Su ondoan zeuden, haserretu ziren eta emaztea laratz burdina hartzera zihoan. Baina senarrak aurrea hartu zion eta laratz burdinaz emazteari besoa hautsi zion.

Senarrak medikuari deitu zion. Emaztea ohean arrantzaka eta biraoka ari zen. Senarrak esan zion:

— Laster sendatuko zara.

Eta gero medikuari:

— Zenbat zor dizut, jauna?

Emazteak ohetik esaten zuen:

— Kobratu horri ondo!

Medikuak esan zuen:

— Ekar hamaseiko bat.

Orduan emaztea medikuari hoska hasi zen:

— Horrenbeste? Zer lan egin duzu, ba?

Senarrak orduan esan zuen:

— Tori (hartu) bi hamaseiko, bigarren besoa ere laster hautsiko baitiot.

Geroztik Hazmotxa oso mantso ibili omen zen.

HAGINAK TRANBIAN GALDU

Ipiñaburuko Periko Galdakaoko dinamitara joaten zen lanera. Goizeko lauretan etxetik irten, ordu bete eta piku oinez, gero tranbian bi ordu eta erdi eta gauean buelta hamar t'erdietan. Zeanurira itzuli eta beste ordubete eta piku oinez etxera. Noiz egiten zuen lo? Tranbian egiten zuen lo, harantz eta honantz.

Hala zihoan lo, goiz ilun batetan. Tranbia jendez beterik joaten zen. Periko lo doa, burura leihoaren kontra kokaturik. Haginak nasai dauzka. Tranbiak krin-kron egiten du eta haginak leihotik kanpora erortzen zaizkio.

Periko ez da ohartzen. Berriz ere krin-kron eta zerbait itzartzen da. Eskua ahora darama eta ai! Haginak falta zaizkio. Eupadaka hasten da. Tranbilariari esaten dio eta tranbia gelditzen da. Tranbiak atzera-martxa ematen du. Tranbikada jendea ere atzera. Periko oinez doa kanpotik, bere haginena bila. Halako batean aurkitzen ditu eta denak pozik aurrera. Periko berriz ere lo. Honelakoxea zen tranbia zahar hartako zibilizazioa.

MAIZTERRA ETA ABOKATUA

Dimako etxagun batek maizterra kanpora ateratzen du San Joan eguerdiko hamabietan. Hurrengo Domu Santuetan, irtena izan behar du. Hala zen orduko legea. Maizterrak ugazabari esaten dio:

— Aterako nauzu, baina simaurrak eraman behar ditut.

Ugazabak erantzuten dio:

— Ez. Horiek bertan utzi behar dituzu. Simaurra etxaldeko gauzaz egina dago.

Orduan maizterra abokatu batengana doa. Dimatik Durangora doa, mendiz eta haitzez. Aita Gurutzekoan atsedean hartzen du. Ira hostoz izerdia kentzen du. Kape-la handia ere kentzen du eta gero ira multzo bat kapela azpian gordetzen du. Badoa aurrera eta abokatuaren etxean sartzen da.

— Egunon! —esaten du eta kapela handia erazten du. Abokatuak ira multzoa ikusi eta galdetzen dio:

— Zertarako duzu hori?

— Izerdia lehortzeko —erantzuten du dimatarrak.

— Zer behar duzu?

— Nire kortako simaurrek berorren ahotik pasatu behar dute.

— Jesus! Neure ahozainetik izango da.

— Ugazabak gurdia neure tejabanen edukitzen du.

Abokatuak: — Utziozu gurdiari pakean.

Dimatarrak: — Simaur pilo ondoan, jenero asko hartzen dut. Bestean ezer ere ez.

Abokatuak: — Ba, egizu dena simaur ondo.

Dimatarrak: — Euliekin ere badaukat pertsekuzioa.

Abokatuak: — Horiekin onena, dauden lekuan jo.

Euli bat abokatuaren sudur puntan gelditzen da. Dimatarrak makilarekin jotzen du. Euliak ihes egiten du, baina ez sudurrak. Geroztik ez da makilarik zilegi abokatuen bulegoetan.

ELGETA - GIPUZKOA

PATRE POSTARIA

«Patre korreoa» edo postaria famatua izan zen Elgetan. Bergarara jaisten zen egunero. Asto zuria eta zaldi beltza erabiltzen zituen. Zaldiarekin ibiltzen zen. Baina astoa zeukan, Uberan gora tiratzeko. Semea erdi gizajoa zeukan eta txistuka edo ahosoinua jotzen ari zen beti. Emakume batek esan zion:

— Felix, hori duk (da) bizimodua.

— Heu ere honelaxe biziko haiz (zara), nirekin ezkon-tzen bahaiz.

Patrek eskutitzak etxean entregatzen zituen. Zerbait hartzen zuen eta pozik joaten zen. Behin idazkariak esan zion:

— Patre! Bihar nire alabak eramango al dituzu Bergarara?

Patrek baietz esan zion. Biharamonean idazkariaren alabak leihotik deika daude. Baina Patrek bertan utzi zituen, esanez:

— Zer uste dute, ba? Aberatsak direla eta edozer?

HILTZEAN GINEBRA BOTILA

Patrek behin lagunei esan zien:

— Ni hiltzen naizenean, zuek eramango nauzue. Baina haxe egin behar duzue: etxetik kanposaturantz, Martintxonean geratu eta ginebra botila bat besapean hartuko didazue.

Patre hil zen. Andariak katabuta bizkarrean zeramaten. Han zihoan Patre defuntua. Apaiza eta jende pila zihoan. Andari bat, Patxi Agerre, Martintxonean geratu zen. Taberna bat zen hura.

— Zer gertatzen da hemen? —galdetu zuen apaizak.

— Beroturik nago eta atsedena behar dut —erantzun zuen Patxi Agerrek.

Ez zen ausartu ginebra botilarik eskatzen. Baina Patxi haren hitzez gogoratu zen.

SAN ROMANGO ERROMERIA

Elgetako ermita batek San Roman dauka izena. Elgetako eta Elorrioko mugan dago. Erromeria famatua egiten zen. Baina orduan lege estuak zeuden. Apaizak erromeria jazartzen zuten. Dantza lotua batez ere. Zer egiten zuten? Hemendik gogor egiten bazuten, Bizkaiko aldera pasatzen ziren. Handik gogor egiten bazuten, Gipuzkoa-

ko aldera pasatzen ziren. Agoazilak Elgetako apaizari parte eman zion. Apaizak orduan sorginak ipini zituen. Sorgin jantzi eta erromerizaleei bildurra sartzen zieten. Mutil batzuk ausartu ziren, sorgin bati heldu zioten eta han agertu zen tranpa. Sorginek esan zuten apaizak agindu ziela.

LAÑUAREN ASTOA

Izarre baserrikoari «Lañua» esaten zioten. Idiak zeuzkan eta batetik bestera ibiltzen zen. San Blas txiki batez auzoak arbitara irten ziren eta esan zuten:

— Ene! Lañuak astoa erosi dik (du).

Garai hartan beste astorik ez zegoen inguruan. Lañuak San Blasetan Abadiñon erosi zuen eta esan zuen:

— Astoa ere erosi dugu, ba.

Galdetzen diote:

— Arra ala emea?

Lañuak erantzuten du:

— Arraioa! Ez dakit horixe. Oraintxe ikusiko dut.

Astoari buztana jasotzen dio eta hots egiten du:

— Arraioa! Arra da, arra! Sakatu digute edarra!

PAKO AZURTZAREN ERDARA

Pako Azurtza behin Eibarrera joan zen. Bueltan Elgetarantz abiatzean, erdaldun batek galdetu zion:

— Para Elgeta por favor?

Orduan errepiderik ez zegoen. Azurtzak hauxe esan nahi zion:

— Altamiratik Azurtzara eta gero lau-lau Elgetara.

Baina erdaraz esan behar zuen eta honelaxe esan zion:

— Primero mirar alto, luego todo entre huesos y luego cuatro cuatro a Elgeta.

PEDROTXO ARRATERA

Arrateko eguna zen eta elgetar asko joaten ziren Arratera, bakoitza bere maletatxoarekin. Pedrotxo ere joan zen, baina hark ez zuen maletarik eraman. Jendeak esaten zuen:

— Pedrotxok ez du ezer ekarri.

Eguerdia heldu zen eta jendea maletak irekitzen ari zen. Zer egingo ote du Pedrotxok? Baina Pedrotxok ere bere plana zeukan. Golkotik sagar erreak atera zituen, bezperan auzoko labean harrapatuak. Sua ere egin zuen. Zertarako sua? Txori bat golkotik atera zuen eta zotz batean txoria erretzen hasi zen. Artoa ere golkotik atera

zuen. Txoria erretzean, koipea erortzen zen. Pedrotxok artoa koipez busti eta jaten zuen. Eta gero txoria bera. Eta gero auzoko sagar erreak. Jendeak ezer ez zeukala pentsatu zuen, baina hark denei adarra jo zien.

Ikusgarria omen zen txoria zotzean erretzen, koipe tantak erortzen eta Pedrotxok azpian artoa ipini eta hura jaten. Bazkari galanta.

EHIZTARI TREBEA

Potxo iheltseroa, elorriotarra, ehizara joan zen. Usotara joan zen. Munizio guztiak erre zituen eta ez zuen ezer bota. Etxerantz zetorren eta farol ondoan erbi bat ikusi zuen berari begira.

— Hau duk marka! Eta orain kartutxorik ez.

Sakelak arakatu eta bi iltze aurkitu zituen. Polbora sartu eta iltze biak disparatu zizkion. Erbiari belarri biak josi zizkion farolaren kontra.

ELORRIO - BIZKAIA

ELORRIO HURA

Balentin Berriotxoaren Elorriokoa zen. Berriotxoaren amak denda bat zeukan. Xenpelarrek Berriotxoaren bertsoak jarri zituen. Orduan itsuak eta eskaleak kalean ibiltzen ziren. Bertsoak kantatu eta diru pixka bat jasotzen zuten. Eskale bat beste gabe etorri eta amari bertso haiek kantatu zizkion. Gero soldaduak ere kantatzen zituzten bertso haiek. Berriotxoaren heriotzaz ezer jakin gabe bi urte pasatu ziren. Haren aitak ez zuen piparik erretzen. Amak, ordea, asko erretzen zuen. Arratsaldeko lauretan txokolatea hartzen zuten. Txokolatea hartu eta pipa erre, nahizta gero babak jan. Orduan ere baziren ohiturak.

MARISA KIRINGIA

Elorrioko Elizako kanpandorrea «Marisa Kiringia» ipini zuten. Zer zen Kiringa hori? Sevillako Giraldaren imitazio bat zen. Zer haize zegoen, halako tronpeta jotzen zuen. Egurrezkoa zen eta bost metro inguru zeuzkan. Elgetatik eta abar jende asko etortzen zen hura ikustera. Bi aldiz erre zen. Lehenengoa tximistak erre zuen. Bigarrena ipini zuten, printzearen jaiotza ospatzeko. Gantzezko kandela bat ipini zioten. Gantzagiak sua hartu zuen eta handik erre zen. Berriro ipini zuten eta hirugarrena ere tximistak erre zuen, duela ehunen bat urte. Haren besoa oraintsu arte Jakobak eduki du. Jakoba oraindik bizi da, bere laurogeita hainbat urtekin.

ISILIK KONPONTZEN

San Rokeko zubian gizon bat kanposantura begira zegoen. Emakume batek galdetzen dio:

— Atsedenean?

— Bai, pentsatzen ari naiz —esaten du gizonak—. Ba al dakizu zer pentsatzen ari naizen? Jauriko etxajauna eta Larramendiko atsoa, San Rokera etorri direnez gero, isilik konpontzen ditun (dira).

San Roke hori kanposantua zen.

LEIHOTIK BURUA

Elgetako gizon batek leihotik burua bota behar zuela esaten zuen. Beti horrelako zoro plantak edo itxurak egiten ari zen. Alaba negarrez ibiltzen zen, hari eutsi ezinik. Behin amak alabari esan zion:

— Eutsi? Bultz egion (egiozu), nahi badu.

— Ah! —hotsegin zuen gizonak—. Ni hiltzea nahi al duzu? Orduan ez dut botako.

EREÑO - BIZKAIA

BIDAGIN DANTZARIA

Ereñar bat bidagina zen.. Gizon handia eta nahiko zabala zen. Errepidean laguntzaile edo horrela zebilen. Dantzari ona eta bizkorra zen. Baina errepide bazterrean erdi geldi egoten omen zen.

Obra bat amaitu zuten eta monjorra egiten zuten. Jan-edana amaitu eta gure gizona dantzan hasi zen. Hango nagusiak eta lankideak, denak harriturik zeuden. Batek esan zuen:

— Mutilak! Nork sinestuko luke, hori bide bazterrean lanean ikusita?

SOLDADUAREN ANDREGAIA

Ereñoko gazteak Santa Ageda eskean ibili ziren. Hurren igandean afaria zeukaten tabernan. Neskak ere afari hartara joaten ziren. Mutil batek, ordea, goizean solda-

dutzara irten beharra izan zuen. Haren andregaiare ere afa-
rian zen, baina triste zegoen. Neskaren nebak kopla hau
kantatu zuen:

**Bart alegre ginen baina
tristura handiak
goizean eskapa deusku
bi falta ditunak.**

Soldadu joan zen mutilak bi hortz falta zituen. Nes-
ka gaixoa guztiz lotsaturik geratu zen. Batzuri ez zitzaien
ondo iruditu hura esatea. Orduan mutilak esan zuen:

— Bi gauza handi leku berean ez dira kabitzen. Lotsa
handia sartu bazaio, tristura handia joango zitzaion. Zer
da hobe?

LAPURRA IHESI

Ereñar bat Lekeitiora joan zen, errenta ordaintzera.
Ordaindu eta kafera joan zen. Han jokoan hasi zen eta
diru asko irabazi zuen. Gaueko hamabietan oinez abiatu
zen Ereñoruntz. Bidean, hiru gurutzeetan, lapur bat ir-
ten zitzaion. Oso ilun zegoen. Lapurrak:

— Alto! —esan zion.

— ¿Quién vive? —esan zuen ereñarrak eta lapurren-
gana mugitu zen. Lapurra orduan ikaratu zen eta sorora
salto egin zuen. Salto egitean, txapela galdu zuen lapu-
rrak. Ereñarrak txapela hartu eta etxera eramanean zuen. Bi-
haramonean lapurraren txapela eskuan hartu eta etxekoei
esan zien:

- Bera harrapatu banu ere, honelaxe ekarriko nuen. Andreak esan zion:
- Gauza ederra ekarriko zenuen. Lapurra. Gizonak erantzun:
- Bai zu ostutzen bazaitu.

MUTILA SORGINEK ERAMAN

Ereñoko baserri batek bi bizitza zituen. Alderdi bateko mutila komunera joan zen.

Denbora aurrera eta mutila ez zen ageri. Etxekoak bil-durtu ziren. Aldameneko gizon zaharrari deitu zioten eta honek esan zuen:

— Egin dezagun su handi bat. Beharbada mutila hotza pasatzen dago nonbait.

Sua egin zuten eta etxe aurreko putzuan pli-pla entzun zuten. Ur zarata zen. Gaua zen.

Leihora irten eta argi gorriak, berdeak eta nabarrak ikusten ziren.

— Ai! —hotsegin zuten—. Hortxe darabilte gure mutila.

Errezatzen hasi ziren, ea askatzen zuten.

Baina ez zuten ezer ikusten. Halako batean, goizaldean, mutilak madari gainetik hots egin zuen:

— Har nazazu ni!

Orduan etxekoak irten ziren, mutila salbatzera. Mu-

tila madari gainean zegoen, lupetzez (basaz) adarrei itsatsia. Kontuz-kontuz askatu zuten. Bildur ziren, baina sorginik ez zen agertu.

GIZON TXIKIA ERROMADAN

Mutil talde bat tabernatik etxera zihoan igande gauez. Bidarteburu inguruan, mutil bat apartatu zen bere etxera joateko. Beste bide bat hartu behar zuen. Abiatu zen bere bidean behera eta gizon txiki bat ikusi zuen. Gizon txikia aurrez zetorren.

Gaua iluna zen. Mutila bildurtu zen. Beste mutil lagunak oraindik han goian zeuden. Baina mutila ez zen deitzen ausartu. Erromadan geldi geratu zen. Gizon txikiak «sonbreru kastorra» zekarren buruan, jake luzea eta bastoia eskuan. Gizon txikiak mutilari begiratu zion eta aurrera joan zen betiko. Nor izan zen? Zer izan zen? Mutilak ez zuen hil arte jakin.

SUAK ETA ARGITASUNAK

Gizon bat Lekeitiotik Ereñoruntz zetorren gauez. Bidean argitasunak ikusten zituen. «Automobilen bat» pentsatu zuen. Bidarteburu ingurura heldu zen eta sua ikusi zuen. Suaren inguruan emakumeak jiraka eta jauzika ze-

EZKIO - GIPUZKOA

SOLDADU EZ JOATEKO

Lehen mailan agertu den Etxeberri soldadutzan ederki ibili zen. Baina aurretik ere bere akzioa egin zuen. Garai hartan soldaduen zozketa herri bakoitzean egiten zen. Ezkion, adibidez, urte batean hamar soldadugai zeuden. Orduan lehenengo seiek soldadu joan behar zuten. Hurrengo biak erreserban geratzen ziren eta azken biak libratu. Lehenengo seietan norbaitek huts egiten bazuen, erreserbakoak joan behar. Erreserbakoentzat, beraz, lan txarra zen aurreko bat gaixotzea edo zerbait gertatzea. Horrela zen sistima hura.

Urte hartan Etxeberri lehenengo sailean tokatu zen. Beraz, soldadu joan behar. Orduan zer asmatu zuen? Erreserbako lehenengoarengana joan eta esan zion:

— Honenbeste diru ematen ez badidak (badidazu), Frantziara hanka egingo diat (dut).

Orduan ere Frantziara ihes egitea nahiko normala omen zen. Baina beste mutilak Etxeberri ezagutzen zuen eta esan zion:

— Zoaz nahi duzun tokira.

Halaxe joan zen Etxeberri soldadu eta aberats etorri.

ESATEN DIAT EGIA

Ezkioko Ama Birjinaren garaian, jende asko etortzen zen. Milaka eta milaka. Etxeberri aparkaleku bat zeukan bere soroan. Gregoriok kotxea aparkatu zuen eta Etxeberri goardabarro gainean zutik jarri zen. Gregoriok azeleratu zuen eta ehun metrora bat-batean gelditu. Etxeberri airean joan zen. Gero Gregoriori esan:

— Hara, motel! Esango diat (dizut) egia, haizela mjadero ikaragarria.

PATXI IARTZARREN EBANJELIOA

Patxi Iartza ezkiotar jatorra zen. Baita taberna gizon fina ere. Ez dago gizon jatorrik, tabernazale fina ez denik. Hona hemen Patxi Iartzak zabaltzen zuen ebanjelioa:

— Santo Dios! Langileentzako lana eta alferrentzako jana.

Baina badaezpada, norberak ere arreta pixka bat behar du, dena Jainkoaren esku utzi gabe. Horregatik esaten zuen:

— Gizona gizon denak gauean ordu erdi esna (itzarrik) egon behar du, biharamoneko jana nola atera pentsatzeko.

Predikatzeak bakarrik ez du balio. Patxi Iartzak bete egiten zuen. Behin arraultze bat nahi zuen. Oilategian,

leihu baten azpian, oilo habia zegoen. Oilo bat leihoan zegoen eta arraultzea egin nahi zuen. Patxi Iartzak habia-ko arraultzeak ikusi zituen, baina ez zuen makurtu nahi. Leihoko oiloaren ipurdian eskua ipini eta haren arraultzearen zain egon zen.

GABIRIA - GIPUZKOA

SABINO ETA ANDRES

Sabino behin menditik joan zen. Haitzarte batetan Arantzazuko fraile bat ikusi zuen neska batekin. «Dena tapaturik» esaten zuen. Sabinok frailea ezagutu zuen eta gero berakin konfesatzea pentsatu zuen.

— Joan nintzen —kontatzen zuen Sabinok— eta galderak egiten hasi zen. Seigarrenera heldu ginen eta han ere galde eta galde. Nik esan nion:

— Guk aspaldion jai dugu hortik, batzuk ahal dute baina.

Gehiago ez zuen galderarik egin.

Andres medikuarengana joan zen. Bihotza gaizki zuen.

— Ez naiz harritzen —esaten zuen Andresek— honek erabili dituen komediekin. Baina gero beste mediku baten-gana joan nintzen. Belaun bat gaizki neukan. Medikiak esan zidan ardoarena zela. Ardoarena? —esan nion—. Beste belaunak ere edukiko du, bada, honek hainbat urte!

Sabino eta Andres lagun handiak ziren. Baita tabernazaleak ere. Sabinok igandeetan, meza aurretik, taberna guztiak pasatzen zituen. Ordu erdi lehenago etorri eta beti egiten zuen hori. Sabino hil zen eta zerraldoa elizara zeramaten eta jendea atzetik.

— Arraioa! —esan zuen Andresek tabernako atetik—. Sabino ez dago ederki, zuzenean elizara joateko.

Gabiriar bati «Berreundios» esaten zioten. Behin Berreundios-ek fraile bat aurkitu zuen maleta handi batekin. Biak gurdian eraman zituen. Azkenean fraileak esan zion:

— Eskerrikasko. Berrehun indulgentzia irabazi dituzu.

— Zer prezio daukate horiek? —galdetu zuen Berreundiosek.

— Hiru pezeta inguru.

— Eman orduan sei erreal, hor goiko tabernan litro erdi bat edateko.

Xabalok Patrizio Etxeberriaren fabrika lan egiten zuen. Igeltso zakuak bizkarrean jasotzen zituen eta eskailera asko ziren. Lan gogorra zen. Behin nagusiak -Patriziok- esan zion:

— Aizu, Xabalo. Zuk egin behar duzu: gorantz zakuak beterik ekarri eta beherantz zaku hutsak eraman.

— Eta bitartean zer egingo dut? —galdetu zuen Xabalok.

GOIZUETA - NAFARROA

FRANTSES ERE JAKIN

Alejandro goizuetarra mendian lanean ari zen. Mugaz handik ari zen, frantses egiten den tokian. Lagun batzuk joan ziren eta galdetu zioten:

— Frantsez ikasi al duk? (duzu)

— Bai noski —erantzun zuen Alejandrok.

— Laster ikusiko diagu (dugu) zenbat frantses ikasi dukan (duzun).

Mahaian jarri ziren eta zerbitzaria etorri zen. Oilaskoa nahi zuten, baina zerbitzariak ez zuen ulertzen. Alejandro mahai gainera igon zen eta «kukurrukuuuu!» egin zuen. Eta gero esan zuen:

— Orain ikusiko duzue zer ekartzen duen horrek. Baita ekarri ere.

ERREGA ESKOPETAZ

Goizuetan bazen «Erregea» esaten zioten bat. Bost alaba zeuzkan eta mutilak baserri hartan ibiltzen ziren. Leihotik ezkutuan sartzeko ere hitzegin zuten neskekin. Hasi ziren eta inguruan iskanbila sortu zen. Erregeak zer-bait somatu zuen eta leihotik eskopetaz esan zuen:

— Aldegin hemendik, tiro emango dizuet eta.

— Guk aldegin da, zeini tiro eman behar diok? (dizu) —esan zuen mutil batek.

PADRE FLORENTINO

Gerra garaian mutil bat soldadu zegoen Oiartzungo mendietan. Maki garaia zen. Behin aita semea ikustera joan zen. Mendira heldu zen eta soldaduek harrapatu eta galdetzen hasi ziren. Gizonak esan zuen:

— Padre Florentino, hijo Orio.

Florentinoren aita zela esan nahi zuen eta Florentino Oriokoa zela. Baina soldaduek ez zioten ulertzen. Azkenean gizona ernegatu zen eta esan zuen:

— Tori trago bana —eta zahatoa eman zien.

PATRI FILIO

Oiartzungo aitona bat Goizuetako Eskortira etorri zen. Han mantentzen eta zaintzen zuten. Gizon haren lana egurra ekartzea zen. Egurra ahitu (amaitu) zen eta hesietatik taketak ekartzen hasi zen. Olajaundiko Zizilioren hesitik ere bai. Behin Ziziliok esan zion:

— Hoa (zoaz) hortik, lapurra.

— Ni lapurra? Gloria patri filio, Olajaundiko Zizilio.

PAXTEROREN TXORIA

«Paxtero» hil zen. Paxteroren lan bat txoriak erostea eta saltzea zen. Emakume batek esaten dio:

— Txori bat nahi dut, Paxtero. Baina kantatzen dakiena.

Paxterok esaten dio:

— Badaukat nik txori bat zuretzat aproposa, egun guztian isiltzen ez dena.

Emakumeak txoria eramaten du. Kanaria edo gardantxiloa edo horrelako txori bat zen. Geroztik egun batzutarra, emakumeak Paxterori esaten zion:

— Txori honek zerbait badauka hanketan. Erren edo. Paxterok galdetzen du:

— Kantatzen al du?

— Hori bai. Ederki kantatzen du.

Paxterok orduan esaten du:

— Eta zer nahi duzu, ba? Kantatu eta gainera dantzatzea?

MONJEI ERREGALUAK

Anjel Loiartek eguberritan erregaluak eramaten zituen Hernaniko monjetara. Urtero egiten zuen hori. Txerrikiak eramaten zituen: solomoak, urdaia eta abar. Urte batez monjei esan zien:

— Hemen daukazue hauek. Txiztorra bera samar (bigun samar) dago oraindik. Baina gogortzen zaidanean, etorriko naiz.

Loiarate hura mutilzaharra zen.

ABARKA HAUNDIAK

«Nerbio» morroi zegoen Anjel Loiarterekin. Behin Nerbiok Loiarteri esan zion:

— Abarkak nahi ditut.

Loiartek galdetu zion:

— Zer zenbaki?

— Haundienak —erantzun zuen hark.

Loiarte harritu zen baina haundienak erosi zituen. Nerbio ez zegoen guztiz konforme eta zerbait egitea pentsatu zuen. Abarkarik haundienak jantzi eta disimuluan artoz betetzen zituen. Arto alez abarka haundiak bete. Horrela etxera arto pila eramaten zuen. Behin, zubian, oilo guztiak atzetik zihoazen. Nagusiak ikusi eta galdetu zion:

— Hik zertarako erosi dituk (dituzu) abarka haundiak?

Nerbiok erantzun:

— Oiloak bazkatzeko.

PARET BIKAINA

Goizuetako baserri batetan gorozketariak ziren egun hartan. Gorozketariak gorotza edo simaurra zabaltzen dutenak dira. Herreroak ez zuen ondo ulertu, goizean ala arratsaldean. Goizean joan zen. Baserriko gizonak esan zion:

— Arratsaldean zen, ordea.

Herreroak erantzun zuen:

— Orduan etxera joango naiz eta arratsaldean etorriko naiz.

Baserriko gizonak:

— Beno. Hemen zaude eta lanen bat izango da. Paret bat dago hor eroria eta horixe egin.

Herrero konformatu zen. Baina harlantz inoiz ezer egin gabea zen. Harriak pilatzen hasi zen eta pareta egin zuen. Eguerdian etxeko mutikoa eskolatik etorri zen eta esan zuen:

— Herrero! Zuk eginiko pareta, dena erori da.

Herrerok orduan erantzun:

— Zer uste huen, ba? Betiko egina zela?

HELETA - NAFARROA BEHEREA

ASTO BERRIAK

Heletako plaza ondoan Madarieta auzategia dago. Lehen madari edo udare asko zegoen eta hortik hartu du izena. Santa Katalinaz bezala, martxoaren 19-20an udaberriko feriak egiten dira. Heletar bat feriara zetorren eta ohartu zen abere asko zegoela. Inoiz baino zaldi, pottoka eta asto gehiago. Batez ere asto asko zegoela ikusten zuen. Feriara heldu zen eta esan zuen:

— Zer asto pila handia bildu den gaur hemen!

Madarietako Lionek orduan bota zion:

— Bai eta berriak etortzen.

IZENA ETA SUDURRA

Heletako plazan ostatu asko dira. Ongi eta merke ere jaten da. Ostatu horietarik bat, «Idiointzaharreta» da. Behin Xalbador zena han ari zen edaten, beste artzain lagun

batzurekin. Ostatu hartako nagusiak Jano (Jeannot) zuen izena. Gizon honek Heletako sudurrik luzeena omen du. Xalbadorrek bazekien Jano izena zeukala, baina hala ere galdetu zion:

— Aizu, nagusia. Zuk nola duzu izena?

— Nik, Jano.

— Zer bitxikeria —esan zuen Xalbadorrek—. Izena laburragoa duzu sudurra bano (baino).

ZENBAT ZERURA

Behin Heletako apezak prediku beroa egin zuen. Berotu zen eta oihu egin omen zuen:

— Zerura joan nahi duzuenok zutik!

Herritar guztiak jaiki ziren, bat izan ezik. Orduan apezaz beroago jarri zen eta esan zion:

— Zuk ez al duzu zerura joan nahi?

— Bai, baina gero. Orain ez —erantzun zuen gizonak.

Beste prediku bat ere egin zuen Heletako apez batek. Haurrak elizan aurrean egoten dira, aldaretik hurbil. Baina hamabost urteko neskak haurren lekutik atzera pasatu ziren edo atzean geratzen hasi ziren. Apezak predikuan hauxe esan zuen:

— Badakit emakume haurdunak une batzutan atzean egotea ondo dagoela. Baina ez dut uste hor denak haurdun direnik.

Geroztik denak aurrera etorri omen ziren berriro. Beharko.

IHOLDI - NAFARROA BEHEREA

ZER PAREA

Lehen mailan ezagutu dugu Mixel. Behin Mixel hori beste lagun batekin zihoan. Zurubi bat bizkarrean zeramaten. Bata aurrean eta bestea atzean eta zurubia bizkarrean. Aurrera zihoazen eta aldamenean gizon bat begira zegoen. Gizona begira eta irriz zegoen. Mixelen lagunak Mixeli esan zion:

— Gizon hori guri irrika dago.

Mixekek esaten du:

— Irriak ez du minik egiten.

Gero Mixekek gizon irrigileari esan zion:

— Bazekiat (badakit) bai. Bazekiat zer pentsatzen dukan (duzun). Hik guri begira pentsatzen duk (duzu): Zer ustel pareta!

MIZPIRAK BEZALA

Iholdin herriko hauteskundeak ziren. Bi talde zeuden herriko etxean edo udaletxean sartzeko asmoan. Garai hartan alkatea ez zen ongi ikusia. Batzuren ustez, gauza oker asko egina zen. Herritar askok udaletxeko zenbait gizon kanpora bidali nahi zuten. Esan bezala, bi talde azaldu ziren hauteskudeetan eta berriz ere alkatearen talde osoak hartu zuen udaletxea. Orduan Bazterretxeko Jan Pierrak esan zuen:

— Horiek mizpirak bezala dituk (dira), ustelago eta hobeago. (Mizpira usteldu eta jaten den frutua da).

ONENAK KANPORA?

Auzo herri bateko lantegi txiki batean, Iholdiko gazte batek lan egiten zuen. Baina laster nagusiak kanpora bidali zuen, lan gutxi omen zuelako. Iholdiko herriko festak heldu zirenean, elkar aurkitu zuten. Nagusiak bere lehengo morroiari deitu eta esan zion:

— Goazen tabernara, zerbait edatera.

Tabernan sartu ziren. Bazterretxeko Jan Pierra ere han zegoen eta nagusi hari esan zion:

— Zer, hi? Lehenagoko mutil batekin edaten?

Nagusiak erantzun zion:

LAURO - BIZKAIA

GARIAK ETA ABARKETAK

Garai hartan garia ereiten zen. Eta gari kupo bat entregatu behar izaten zen. Zerga astuna zen hori. Jose Garaik urte hartan ez zuen garirik entregatu. Gero Bilbora dei egin zioten. Jose Garai gizon handia zen. Abarketetan berrogeita lau jazten zuen.

— Zergatik ez duzu garirik entregatu? —galdetu zioten Bilbon.

— Ez dudalako hartu —erantzun zuen Jose Garaik.

— Ez al zenuen, ba, erein?

— Bai. Erein nuen, baina gutxi. Erdia, erne aurretik, txoriek jan zuten. Erne zen apurra gero behiek jan zuten. Eta gero, geratu zen apurra lehor-teak harrapatu zuen. Azkenean bat ere ez.

— Denok esaten duzue berdin —esan zion haserrez agenteak—. Mungialdean baba ederrak ikusten dira balakoietan.

— Bai! —esan zuen Jose Garaik—. Neuk ere hemen zapatadenda ederrak ikusten ditut. Baina hona nola natorren.

Jose Garaik bere abarketa handiak leihatilan ipini ziotuen. Agentea «ordenanza!» oihuka hasi zen.

LAUROTAKO SORGINA

Laurotan bazen sorgin bat. Arboladian ibiltzen zen beti. Laurotarrek ikusten eta entzuten zuten. Baina sorginak ez zuen handik aldegiten. Mutilen artean asko hitzegiten zen, sorgin hura nola kendu. Behin Lorentzo joan zen eta esan zion:

— Arboladi honetatik aldegin behar duzu.

— Ez dut aldegingo! —esaten zuen atsoak.

Orduan Lorentzo arbola ebakitzen hasi zen. Orduan sorgina beste arbolarara pasatu zen. Lorentzok arbola hura ere ebaki zuen. Horrela aldegin zuen sorginak.

Sorgin hura ez zen ipuina. Atso bat zen, benetako atsoa. Inork ez zekien nor zen ez nongoa zen. Arboladi hartan egoten zen. Norbait joaten zenean, atsoa arbolarara igoten zen. Denbora gutxi egin zuen han. Lorentzok bidali zuen. Inork ez daki nora joan zen.

NESKAZAHAR INDARTSUA

Bazen etxe batean neskazahar bat. Indartsua eta matxorra samarra zen. Gizon bat handik pasatu zen. Euria hasi zuen eta neskazaharraren etxera jo zuen. Badaezpada esan zuen:

- Ez nator ezertara gero!
- Zertara zatoz, ba?
- Euria da-ta.
- Ba, hemen ez du inork euririk egingo —esan zuen neskazaharrak.

LAZKAO - GIPUZKOA

MOZKORRAREN ZIENTZIA

Joan Migel mozkorturik zegoen. Basoerdi edan eta hogerleko bat eman zion tabernandreak. Bueltak lau pezeta eta bost txakur ziren. Paperezko pezetak sartu zituen eta txakur handi bat lurrera erori zen. Tabernandreak esan zion:

— Tira, Joan Migel! Ez makurtu hamar zentimoren-gatik.

Orduan Joan Migelek beste lau txakur ere behera botatu zituen eta esan:

— Bi errealengatik bai.

TXITXARRILLO

Txitxarrilok ere edana maite zuen. Bada haren esaera famatu bat. Bete bete eginda, esaten zuen:

— Etxera joan, nahiko lo egin, afaldu eta ohera.

ONTTOA ETA ZARTAGIA

Lazkaomendiko bat eta Lazkaoko beste bat meza ondoren elkarrekin biltzen ziren tabernan. Lazkaomendikoak esan zuen:

— Ai, Joxe Mari! Ikaragarria gertatu zait. Basa behiak etxera ekartzera joan nintzen. Ekaitz gogorra hasi zen. Eskerrak ontto handi bat aurkitu nuela. Hamabi behik eta nik harexen azpian pasatu genuen ekaitza.

Besteak esan zuen:

— Gu hemen zartagai bat egiten ari gara. Alde batean mailuz jo eta bestean ez da hotsik entzuten.

Lazkaomendikoak galdetu zion:

— Zertarako duzue zartagi hori?

Eta besteak erantzun:

— Zure onttoa prijitzeko.

AURRERAPENA

Hiru lazkaotar lantegi aurrean zeuden goizean. Goiz argia eta urdina zen. Erreakziozko abioi bat pasatu zen eta batek esan zuen:

— Koño! Abioia ketan. Eta bai goitik ere!

Bigarrenak:

— Zerekin ibiltzen dira horiek?

Eta hirugarrenak:

— Bai mutil! Poxpoloekin sua emanda.

EDUKAZIOA

Edukazioa ere bazen Lazkaon. Dozenerdi lagunek igandetan Beasainen txuleta jateko ohitura zeukaten. Lauk beren txuleta hartu zuten eta bi geratzen ziren, bata handia eta bestea txikia. Bi lagunak edukazioz ari ziren:

— Hartu hik! —batak.

— Hartu hik! —besteak.

Azkenean batak handia hartu zuen.

— Hori duk (da) edukazioa! —esan zion besteak.

— Hik zer egingo huen (zenuen) ba? —erantzun zion hark.

— Txikia hartu! —besteak.

Orduan lehenengoak esan zion:

— Ba, hor daukak (daukazu).

ZERTARAKO HANKA

Agure bat ohean zegoen. Hanka moztu behar zioten gaixoari. Lagun bat etorri zen eta esan zion:

— Ai, ai! Hanka moztu behar!

Besteak animatu zuen:

— Lehen ere nahiko ibili haiz (zara) hi. Ohean egote-
ko ez duk (da) hankarik behar.

OIARTZUN - GIPUZKOA

EZKONBERRIAK DONOSTIAN

Ezkondu ziren eta Donostiara joan ziren bidaian. Gerra ondoa zen eta ezin zen urrun joan. Senar-emazte berriak kafetegi batean sartu ziren. Mahaitxo batean eseri ziren eta andreak esan zuen:

— Ederki gaude, ez?

Beste mahai batzuk ere baziren han eta jende gehiago ere bai. Mahai batean zerbitzariak galdetu zuen:

— ¿Qué desea usted?

— Yo una copa de Marie Brizard —esan zuen andreak.

— Yo una de Carlos Tercero —esan zuen gizonak.

Gure ezkonberriak hori entzun zuten eta senar berriak esan zuen:

— Josepa, izen-abizenak hartzen ari dira hemen.

Gero zerbitzaria etorri zitzaien eta:

— Ustedes qué desean? —galdetu zuen.

Senar berriak erantzun zuen:

— Esta Josepa Lekuona y yo Jose Antonio Salaberria.

GOIZUETARRA AMERIKETARA

Gertaera hau Goizuetakoa da, baina Oiartzunen kon-tatu ziguten. Goizuetak eta Oiartzunek harreman handia eduki dute.

Goizuetarra, ba, Ameriketara artzain joan zen. Inoiz ez zuen trenik ikusi. Joan zen eta nagusiak esan zion:

— Ardiak ibiltzeko lurralde horiek dituk (dira).

— Bai lurralde zabalak hauek! —esan zuen goizuetarrak.

Egun batez gauza beltz bat ikusten du. Halako batean «i-i-i» oihu egiten du eta trenak ardi pila bat akabatzen dio. Berrogei ardi hiltzen ditu trenak. Nagusia etorri zen eta haserretu zen.

— Nola egin duk (duzu) hori? —galdetzen dio.

— Ez kexa —erantzuten dio goizuetarrak—. Zuzen bezala, zeharka etorri balitz, ardi guztiak garbituko zituen.

Nagusiak goizuetarrari bidaia ordiandu eta etxera bida-li zuen. Donostian, bueltan, goizuetarrak jostailu batzuk ikusi zituen.

Gabonak ziren. Jostailuetan tren txiki bat ikusi zuen. Goizuetarrak jo eta hautsi zuen tren txikia. Emakume saltzaileak hots egin zion:

— Zertan ari zara? Erotu egin al zara?

— Erotu? —erantzun zion goizuetarrak—. Horri haz-ten uzten badiozu, ikusiko duzu zer kalte egingo dizun.

KIRRIMILLO ETA ALKATEA

Kirrimillo itzaina zen. Itzainak famatuak izaten dira biraoak (maldizioak) botatzen. Erdaraz esaera da «karreteroak» biraolariak direla. Euskal Herrian ere hori antzera zen. Kirrimillok ere noiz edo noiz botatzen zituen. Behin, «Kabuendios» bat bota zuen eta, hain zuzen, Sekundikok aditu. Hau Oiartzungo alkatea zen eta biraolarien aurka famatua zen. Neurri zorrotzak hartzen zituen biraoa botatzen zuenaren aurka. Kirrimilloren biraoa gogoan hartu zuen. Sekundino alkateak ardotegi bat zeukan. Aldi berean pentsuak eta baserritarrentzat gauzak ere edukitzen zituen. Egun batez gure Kirrimillok erosketa egin du eta Sekundinok kontua prestatzen dio:

— Pentsuena hamar hogerleko, eta lehengoan bota zenuen biraoaren multa bost hogerleko. Guztira hamabost hogerleko.

Kirrimillok patrikaratik hogeit hamar hogerlekokoa atera eta esan zion:

— «Kabuendios»! Tori hogeit hamar hogerleko eta horrela kito.

Kirrimillo honengatik beste hau ere kontatzen dute. Behin Sekundinok bost pezetako multa jarri omen zion, biraoa bota zuelako. Kirrimillok ordaindu omen zuen eta ondoren biraoak bota eta bota joan omen zen kaleraino.

HORDAGO!

Kaskazuri famatuarena ere kontatzen dute. Joanitorenearan zegoen eta alkatea azaldu zen. Alkateak esan zion:

— Aizu, Joxe Joakin. Maldizioa bota duzula esan didate.

— Ez, jauna! —esan zuen Kaskazurik.

— Bai, jauna! —alkateak.

— Ez, jauna! —Kaskazurik berriz ere.

— Bost pezeta multa! —hotsegin zion alkateak.

— Mekabuen! —Kaskazurik.

— Beste bost gehiago! —alkateak.

— Hordago! —jo zuen Kaskazurik.

ZALDIA ERE BIRAOLARI

Sekundinok ba omen zeukan morroi bat, zaldiarekin ardoa ekartzen zuena. Oiartzungo kalera iritsi aurretik, malda punta gogorra dago eta morroiak beti biraok botatzen zizkion zaldiari. Sekundinori esaten zioten:

— Zuk besteak salatzen dituzu, baina zure morroiak botatzen ditu handienak.

Sekundinok morroiari kontu hartu zion eta morroiak erantzun zuen:

— Ez al duzu nahi nik biraorik botatzerik? Orduan

zerorrek eraman zaldia malda puntan.

Biharamonean Sekundinok zaldia hartu zuen eta malda puntan hasi zen:

— Jesus, arrejesus! Arre! Jesssus! Arre! Arre! Tira! Jainkoak lagunduko dizu eta arre!

Sekundino aspertu zen eta morroiari deitu zion. Honnek maldizio batzu bota eta laster eraman zuen zaldia. Eta nagusiari esan zion:

— Zer diozu orain?

OIARTZUNGO KASKAZURI

Oiartuar bat «Kaskazuri» zen. Kaskazuri oso fama-tua izan zen. Haren ateraldiak eta gertaerak herritar askoren gogoan daude. Behin Kaskazuri soroan ari zen, babak igitatz ebakitzen. Ba al dakizu babak nolakoak diren? Babak heltzen dira. Gehienez, biltzeko, atera egiten dira. Baina Kaskazuri igitatz ebakitzen ari zen. Gizon bat handik iragan zen eta galdetu zion:

— Babak ebakitzen ari al zara?

Kaskazurik:

— Bai, bertan utziko al ditut, ba?

— Ez, baina guk ipurditik ateratzen ditugu —esan zuen gizonak.

Kaskazurik orduan:

— Guk ere bai, janda gero.

SUDURRA ETA BIPERRAK

Kaskazurik sudur handia omen zeukan. Edanzalea ere bazen eta sarritan sudurra gorri edukitzen zuen. Behin lagun bat hizketan hasi zen eta esan zion:

— Zer moduz, Joxe Joakin?

— Ikusten nauzun moduan, bistatik ondo baldin bazaude —erantzun zuen Kaskazurik. Orduan lagunak esan zion:

— Hori da sudur ederra! Nahiago nuke zure sudurra bezalako biper gorriak egitea gure baratzean.

Kaskazurik orduan:

— Bai eta zure mihia bezalako hostoekin. Itzal ederean hasiko dira biperrak.

HAITZURRA ETA PALA

Kaskazuri lanean ari zen. Horma edo paret bat egiten ari zen. Oiartzungo medikua handik iragan zen eta esan zion:

— Kaixo, Joxe Joakin! Zer dugu, ba?

— Hemen ari naiz, jauna, paret bat egiten. Harriak landu eta harriak ipini.

— Ez da hori zaila. Hargin txarraren hutsak igeltse-roak estaltzen ditu.

Orduan Kaskazurik esan zion:

— Mediku txarrarenak, ordea, haitzurak eta palak.

PILOTARI TREBEA

Oiartzuar bat behin pilota partidua ikustera joan zen. Gizon gaztea eta bera ere pilotari dezentea. Partiduak hasi behar zuen. Baina pilotaria falta zen. Orduan oiartzuar honi esan zioten. Gizonak galtza zuriak jantzi zituen eta han zegoen zelaian, eskuak berotzen. Esku ezkerre guztiz ezteusa edo nuloa zeukan. Zer egin zuen orduan? Esku hori bendaturik atera zuen, zauriturik balu bezala. Partidua galdu zuen, baina eskuinarekin ederki jokatu zuen. Jendeak gero esaten zuen:

— Esku ezkerre ondo eduki balu!

JOXE BARBERO

Joxe Barbero Xalutotarren osaba zen. Oso gizon xelebrea zen. Don Regino medikuaren zaldiarekin ibiltzen zen askotan. Ibili ezik, aberea gaiztotu egiten da eta Joxek erabiltzen zuen hara eta hona. Mendian zehar erabiltzen zuen, nekatzeko eta forman edukitzeko. Behin menditik etorri zen, eta lagun batzuri galdetu zien:

— Non dago nire koadrila?

Haiek erantzun zioten:

— Donostiara joanak dira.

Joxe Barberok berehalaxe antz eman zuen.

— Haiek hantxe egongo dituk (dira) —pentsatu eta Donostiako alde zaharrera doa. Zaldian doa eta putetxe batera sartzen da. Zalditik jetxi gabe, atarian sartu eta danba-danba eskaileran gora doa. Lehenengo pisura igon eta oihuka hasten da:

— Non zaudete, lagunak?

Han armatu omen zen iskanbila. Zaldiak ezin gero eskailerarik jetxi eta putak garraisika.

Beste behin Joxe Barbero mendira joan zen zaldi gainean. Artikutza aldera joan zen eta jendea ikusi zuen, bizkarrean ikurrin handiekin. Orduan berak ere ikurrin haundi bat bizkar gainean hartu zuen. Menditik buelta egin zuenean, kalearen erdian ibili zen, bere ikurrina bizkarrean eta zaldi gainean. Berrehun eta berrogeita hamar duroko multa bota zioten.

OLIVASEN GOANTEAK

Olivas Oiartzungo pertsonaia kurioa zen. Nikolax izena zeukan, baina denek Olivas esaten zioten. Minak aurkitzen abildade handia zeukan. Baita zigarro erretzen ere. Zigarroa pizteko, ohitura hauze zeukan:

Patrikera batetik zigarroa atera eta bestetik poxpolo kaxa. Zigarroa piztu eta poxpoloa airean botatzen zuen lurrera.

Behin autobusean zihoan eta gauza berdina egin zuen. Baina aldi hartan metxeroa zeraman poxpoloen orde. Leihoa ireki, zigarroa piztu eta metxeroa danba bota zuen leihotik. Berehalaxe ohartu zen, baina alferrik.

Beste behin, tabakoa etxean ahaztu zitzaion. Bazkal ondoan purua erre eta tabakoa hartzea ahaztu. Autobusean konturatu zen eta erretzeko imintzioak edo plantak egiten hasi zen. Jendeak arretaz begiratzen zion. Gero esan zuen:

— Beno. Jo dezagun erre dugula. Hau bukatu duk eta kito.

Behin Donostira joan zen autobusez. Bidean goante bat galdu zuen eta Donostian konturatu. Pentsatu zuen:

— To! Goante bat bakarrik zertarako diat (dut)? Eta harrika bota zuen.

Krutex Bikandik goante galdua autobusean aurkitu eta jaso zuen. Bueltan Oiartzunen esan zion:

— Tori goantea. Zurea da noski.

Olivasek orduan:

— Bota ezazu harrika. Horrekin bakarrik ere ez dut ezer egiten.

ORTZAIZE - NAFARROA BEHEREA

TXERRIA ETA EMAZTEA

Ortzaizeko gizon bat gorra (elkorra) zen. Behin emaztea gaisorik zeukan eta medikua ere ekarri zioten. Auzoko gizon bat etorri zen eta galdetu zion:

— Ongi al dago zure emaztea?

Gizonak ez zuen ezer entzun. Txerri bat zebilen han bertan eta hain zuzen ihausi zen. (Ihausi: txerri emearen zeloa). Eta hauxe erantzun zuen:

— Berriz ere ihausi da bera. Oraingoan ernaltzen ez bada, ganibeta sartu beharko zaio.

GOLDEAK META PUNTAN

Ortzaizen ere baziren dibertsio gogorrak. Irri egiteko modu bitxiak. Hitz batez, astakeriak. Igande arratsean mutilen dibertsio bat hauxe zen: golde bat hartu eta me-

ta puntara jaso. Belar meta haiek batzutan sei metro goraziren. Han geratzen zen goldea erdiko ziritik zintzilik. Biharamunean golde jabearentzat ez zen lan polita hura handik jaistea.

Beste batzutan golde gurgilak ehortzi edo enterratzen zituzten. Goldea han geratzen zen soroaren erdian, bere ildoan gurgil gabe. Biharamunean joan eta berriak ipini behar. Hurrengo urtean berriro soroa goldatzen hasi eta han agertzen ziren gurgil zaharrak, lurtean ehortzirik.

KABALKADA

Ortzaizen «Kabalkada» galdua zen. Duela berrogeita seiren bat urte egin zen azkena. Baina duela bi urte berriro hasi dira. Gazteek tradizio zahar hori piztu dute. Zer da kabalkada? Herri bat dantzari eta kantari.

Pertsonaia asko dira. Badira «bolantak», txapel gorri eta galtza zuriz. Zaldikoak hiru. Hauek ikurrin bana daramate: Nafarroako biak eta Euskal Herrikoa. Gero txistulariak eta gaitalariak datoz eta «zapurrak» haizkoekin. Badira «basandereak» ere, oso handiak, hiru metrotako diganteak. Azkenez eskelariak (eskaleak). Hauek gehienak gorriak dira, baina berdeak ere izaten dira nahasirik.

Lehenago, «bolantak» etxe bakoitzetik bat izaten ziren. Orain, guztira, berrogeita hamarren bat lagun biltzen dira. Herriko plazatik Haizemendira joaten dira kabalkadan. Han zikiro festa edo zikiro jana egiten dute. Anitz jende mugitzen da eta egun ederra izaten da. Maiatzaren

ZALDIBIA - GIPUZKOA

PARET EDERRA

Biandetxe oso hargin ona zen. Soroa aldapan zegoen. Soro barreneko pareta egiten ari zen, lurrari eusteko. Gero Iraolaren etxetik pasatu zen eta Patxi Iraolak galdetu zion:

— Zer, osaba?

Biandetxek erantzun zuen:

— Hor izan naiz Igartzetan, pareta egiten. Hiru metro harri jarri ditud eta ez da berehala eroriko.

Patxik esan zion:

— Ba al dakizu zer esan didan Otegi horrek? Hauxe esan du: Paret hau egongo al da zutik? Lehenago ere Emakumeneko Joxek egin zuen eta erori egin zen.

Orduan Biandetxek esan zuen:

— Ba, hurren erortzen denean, abisatu gure etxera, baina ni ez naiz etxean egongo.

HAU DA PULAMENTUA

Biandetxe garaje bat egiten ari zen etxe batean. Etxeko bi anaiak txerri tratulariak ziren eta etxetik kanpoan ziren. Emakumeak bakarrik zeuden etxean eta ezin zuten peoi lanik ondo egin. Biandetxek hotsegin zuen:

— Kristo Dios! Ez harririk, ez masarik. Hau duk (da) pulamentua!

Emakume batek -neskazaharra bera- esan zion:

— Zuk ez daukazu, ba, pazientzia handirik. Zure andreak gorriak ikusi beharko ditu zurekin.

Biandetxek erantzun zion:

— Hark gizona badauka, nola halakoa. Zuk bat ere ez.

Gero Biandetxek pareta altxatu zuen eta aldamiaoa jarri behar zen. Horretarako astoak behar ziren. Aldamiaoren sostenguak dira «astoak». Etxeko gizonak etorri ziren eta Biandetxek esan zuen:

— Astoak beharko ditugu, ba.

Gizon batek esan zuen:

— Gurean ez dago, ba, astorik.

Orduan Biandetxek:

— Ni behartzea aski zen. Etxe honetan gure denbora guztian izan dira astoak eta orain ez dagoela?

MANDEMEAREN NATURA

Biandetxek simaurlekuan azak zeuzkan. Baratza zeukan. Auzoko mandemea baratza sartu zen eta marra-marra jaten ari zen. Biandetxek ikusi zuen, baina ez zion jaramonik egin. Gaztainondo bat ebaki, eztena sartu eta zorroztu zuen. Gero mandemearen ondora joan zen kontuz kontuz. Hurreratu zenean, atzetik sartu zion. Mandemea agudo joan zen etxera. Mandemeari odola zerion. Odola botatzen zuen atzetik. Etxekoandreak Biandetxeri esan zion:

— Hau zure azioa izango da. Natura zulatu diozu. (Natura: abere emeen alua).

Biandetxek orduan:

— Kristo Dios! Nik ez dut, ba, orain arte zulorik gabeko naturarik ikusi.

ZEANURI - BIZKAIA

ORRAZIA ETA ASKAZIA

Lanbreabeko andrea erre kara joan zen lixiba egitera. Joan zen eta orrazi bat aurkitu zuen. Orrazi polita eta urrezkoa zen. Etxera eraman zuen eta gau hartan garraisiak entzuten ziren. Garraisiak hauxe esaten zuten:

— Lanbreabeko etxanderea, ekazu nire orrazia, ez-pabere neuk egingo dot zure askazia. (Ekazu = ekar eza-zu. Ezpabere = bestela).

Biharamon goizean Lanbreabeko andreak lamiari bihurtu zion orrazia, zapi zurian bildua. Lamiak hartu zuen eta zapi zuria erre zen.

BENETAKO SORGINAK

Altsuako etxe batetan gauez harrika egiten zuten. Tei-lak eta kristalak hausten zituzten. Sorginak ote ziren? Etxean bi neska zeuden. Areatzatik mutilak etortzen zi-

ren. Zertara? Neskak zaintzera. Inoiz ez zuten sorginik harrapatzen. Behin gizon batek esan zuen:

— Gaur gauetz etxeko mutila preso edukiko dugu.

Esan eta izan. Gau hartan ez zen harrikadarik izan. Etxeko mutila zen benetako sorgina. Zergatik egiten zuen hori? Arrebek esaten ziotelako. Atxakia bat zen hori, mutilak gauero etxera etortzeko.

ATSOA IKUSI DUGU

Hau ez da aintzinako kontua. Duela hamabost egun gertatu da. Zeanuriko bi emakumek -Paulek eta Bitoriak- Anbotoko atsoa pasatzen ikusi zuten. Iturrian zeuden eta bat batean argitasun handi bat. Zer da hori? Sua bezala omen zen. Buztan luzea zeraman eta Urkiolarantz ezkutu zen. Atsoa Gorbeatik Anbotorantz zihoan. Bi emakumek benetan ikusi zuten. Hor konpon sinesten ez duena. Zer ikusi zuten? Nolakoa zen? Paule eta Bitoria Zeanuriri bizi dira. Galdetu eta pozik kontatuko dizute.

MAKAILOA BUZTANETIK

Emakume batek alabari esan zion:

— Neska! Joan dendara eta ekar makailo lehor bat.

ZEBERIO - BIZKAIA

SANTI TXAPEL DANTZAN

Santi Txapel gizon famatua zen Zeberion. Behin laiketana ari ziren. Lan hartan auzoko denak edo asko biltzen ziren. Ari ziren eta hara non zorrotzaile bat pasatzen den. Santi Txapelek esaten du:

— Agure horri baietz eragin dantzan.

Badoa eta zorrotzaileari esaten dio:

— Dantzan egin behar duzu hemen.

— Dantzan egin behar badut, kastañuelakin egingo dut —esaten du zorrotzaileak. Agureak eskua sakelean sartu eta pistola zahar bat ateratzen du kastañuelatzat.

— Orain zerorrek egin —agintzen du agureak. Eta hara Santi Txapel bera dantzan eta lagunak soroan barreka.

HARAKINAREN DESESPERAZIOA

Santi Txapel harakina zen. Arratiar bat txahalarekin etorri zen. Hiltegian Santi Txapelek txahalaria heldu eta esan zuen:

- Ez dakit hau ala neure burua hil.
- Zer diozu gizona? —esan zuen arratiarrak.
- Hau ez da bizimodua.

Puntzeta atera eta Santi Txapelek bere bularrean sartu zuen. Odola parra-parra hasi zen. Odol puxika bat zeukan golkoan. Arratiarra sokorru eske joan zen, ikaturik. Bien bitartean, harakinak txahala hil, larrutu eta gobernatu zuen. Baita haragi zati polita kendu ere txahalaria. Arratiarra eta beste gizonak heldu ziren.

- Zer gertatu zaizu, gizona?
- Dena aldrebes —erantzun zuen Santi Txapelek—. Neure burua hil beharrean, txahala hil dut. Eta neu hil beharrean, txahala hil da.

TXERRIA EHORTZI

Etxe batetan txerria hil zuten. Txerri handia, hamalau arroakoa. Albaitariak etxe hari ezinikusia zion. Txerria ehortzeko agindu zuen. Gero hori gehiegi zela pentsatu eta esan zuen:

- Beno. Barrukoak ehortzi. Bestea jateko moduan dago.

ZEGAMA - GIPUZKOA

ANTXELMOREN ASMAKIZUNA

Antxelmo kalean doa eta apaizarekin topo egiten du.
Apaizak galdetzen dio:

— Zer moduz, Antxelmo?

Eta Antxelmok erantzun:

— Erdizka.

Berriro apaizak:

— Zer, ba?

Orduan Antxelmok:

— Bai, asmakizun baten erdia asmatua daukat eta beste erdia asmatzeko, dirua behar dut.

Apaizak:

— Zer da, bada, asmakizun hori?

Antxelmok:

— Hegan egiteko inbentua. Begira. Hanka bat altxatu eta ederki egoten naiz. Orain bestea altxatzea falta zait.

ANTONIOREN IMENTZIOAK

Berriz ere Antonio Bolasekin gatoz. Hona zer kontatzen digun:

Behin ehizara joan nintzen, usotara. Goiz guztia pasatu eta ezer ere ez nuen bota. Kartutxoak amaitu eta etxerantz nentorren. Zigarro bat piztu nahi nuen bidean, baina haizea zegoen.

Pixka bat makurtu nintzen eta hura ustekabea. Usoak bizkarrean jartzen zitzaizkidan. Geldi-geldi egon nintzen. Ehunen bat uso bizkarrean neuzkan. Ezin nion pisuari eutsi. Zer egin? Eztul handi bat egin nuen. Usoek sustoz elkar jo zuten eta halaxe hil ziren. Uso pila ederra ekarri nuen.

Antonio tabernan zegoen. Basoerdi bat hartzen ari zen. Komunera joan zen eta bueltan esan zuen:

- Arraioa! Ez naiz ondo ibili!
- Zer, ba? —galdetzen diote.
- Pitilina falta zitzaidan. Erroskakoa erabiltzen dut eta bart mesanotxean utzi nuen.

ANTONIOREN SEMEA

Behin emakume kontua atera zuten. Antonio mutil-zahar dago. Norbaitek Antoniori galdetu zion:

— Ezkondurik al zaude, Antonio?

Antioniok erantzun zuen:

— Egongo ez naiz ba? Semea ere badaukat neu baino zaharra goa.

NEGARRA ETA PIXA

Tabernan zeuden eta egun hartan negarrari buruz ari ziren. Batzuk uste zuten negar egitea ona dela. Norbaitek Antoniori galdetu zion:

— Zuk egiten al duzu negarrik, Antonio?

Eta Antioniok erantzun:

— Ni neu ez naiz konturatzen. Baina pixarekin batera igoal egingo dut.

ORRAZI ARBOLA

Antonio Beasaingo klinikan zegoen. Eguerdiko ordu batean orrazi bat eskatu zuen. Erizainak esan zion:

— Orain ez daukat orrazirik.

Antioniok esan zion:

— Nik badaukat, ba, etxean arbola bat, orraziak ematen dituen.

— Handik ekarri beharko duzu orduan —esan zion erizainak.

— Bai, baina oraindik heltzeko daude —bukatu zuen Antioniok.

ZUMAIA - GIPUZKOA

AITA MARI

Aita Mari ez da fraile izena. *Aita Mari* zumaiar bat zen: Jose María Zubia. Arrantzale trebea eta suharra zen. Itsas salbamenduan ibiltzen zen Donostian. Behin salbatzera joan eta bera ito zen. Donostiako portuan badauka irudi bat eta bertso bat. «Aita» hori donostiarra da, errespeto gisa. Patriarka Mari esatea bezala. Zumaian dena da Aita Mari: Zinetokia, kale bat, poligono bat, lantegi bat ere bai. Gizon hau 1866an jaio zen. Ez da beraz atzoko kontua.

KAFESNE GREBA

Zumaiako ospitalea, gero, zaharren asiloa edo zaharretxea zen. Gerra aurrean gaude. Askaritan baso bete ardo ematen zieten. Ajuria medikuak ardoa kendu eta

kafesnea ipini zuen. Orduan zaharrek manifestapena egin zuten udaletxera. Batzorde bat alkatearekin hizketan ari zen goian eta manifestapena behean, gora begira. Agure batek udaletxeko balkoitik oihu egin zuen:

— Lortu dugu lortu behar zena.

Geroztik berriro ardoa ematen zieten askaritan.

PAKORROTA

Pakorrota mutilzaharra zen. Gaztetan oso trebea, azkarra eta gogorra izan zen. Untzi agerian lo egin eta bi-haramon goizean izotz marka uzten zuen.

— Neure burua bota behar dut —esan eta lau untxi azpitik pasatzen zituen. Susto handiak ematen zituen. Gero bihurritu zen eta azkenean ezer ere ez gizagaixoa.

Horixe: **Pako Rata** edo **Pako arratoia**. Ilargiarekin ibiltzen zen. Bolada etortzen zitzaionean, agur. Behin bere burua botatzera joan zen itxasora. Badaezpada lehenbizi txapela bota zuen. Eta esan zuen:

— Gaizki erori da. Ez du merezi burua hola botatzerik.

Beste behin esposa eta guzti ihes egin zien goardia zibilei. Zubian trenetik ibaira saltatu zuen. Zerbait herrian falta bazen, Pakorrotari kargatzen zioten beti.

Behin haundiki bati txerria ostu zioten. Pakorrota ez zen izan. Baina badaezpada elizako konfesonario zahar batean ezkutatu zen. Hiru egun eta Pakorrota falta zen. Bien bitartean txerri lapurra harrapatu zuten. Igandean apaizak sermoian esan zuen:

— Ikusten? Orain ere Pakorrota zela eta izan ez. Gi-

zagaixoak bere burua bota du nonbait.

Orduan Pakorrotak konfesonariotik hots egin zuen:

— Eup! Pakorrotak ez du bururik bota!

Eta kanpora irten zen. Hura izan zen meza, hura.

GARIZUMA

PIZUKO HAIZ, MUTIL

Herri batean, Ostirale Santuz, Jesukristoren pasioa antzezten dute. Bazen horretarako lagun talde bat, urterro egiten zuena. Jesukristo egiten zuena mutil ederra zen. Baina bai farrandaria ere. Jendeak esaten zuen:

— Begira zer formal dagoen gure mutila. Egun batean Jesukristo eta urtean Santi Deabru.

Hala esaten zioten. Urte batean Jesukristoren pasioa aurrera zihoan. Herri guztia han zegoen. Gurutzean josteko unea heldu zen. Une hunkigarria. Apaiza ere isildu zen. Denak eta dena isil-isilik zegoen. Lehenbizi Jesukristo gurutzean sokaz lotu zuten. Han zegoen Santi Deabru. Gero iltzeekin jostea zetorren. Mailuaren hotsak entzuten ziren. Iltze sartzaile egiten zuen mutilak pentsatu zuen:

— Oraintxe izorratuko haut (zaitut) nik hi.

Eta iltze bat benetan sartzen hasi zen. Santi Deabruk orro egin zuen:

— Ai! Zertan ari haiz, alu hori?

Besteak erantzun zion:

— Ez al haiz, ba, Jesukristo?

— Eta hi zerri galanta!

— Piztuko haiz, mutil!

— Bizi denak ez dik (du) piztu beharrik!

Aktoreak berriro errespetora itzuli ziren eta pasioak aurrera jarraitu zuen. Ostirale Santu hura herriaren go-goan geratu zen.

EGUNEAN OILO BAT

Herritxo batean apaiz bakarra zegoen. Garizumako misioak egiteko, fraile bat ekarri zuen. Apaizaren neska-meak oilorik ederrena hil zuen. Aste guztia oilo haren saldaz eta okelaz pasatzeko asmoa zeukan.

Lehenengo bazkaria zen. Neskameak oilo osoa atera zuen, azpil handi batean. Zati bat ateratzea edukazio guxtiago zela uste zuen.

Fraileak, ordea, oilo osoa jan zuen. Gero biharamonean ere ezin gutxiago egin. Beste oilo bat atera zuen eta fraileak dena jan zuen. Zazpi egunetan zazpi oilo. Apaiza kebraturik utzi zuen. Gero sermoi batean diru eskea egin zuen:

— Aurtengo misioetan gastuak ere haundiagoak izan dira.

— Zer gastu? —galdetzen zuten herritarrek.

Apaizak ez zuen agertu nahi. Azkenean esan behar izan zuen:

— Egunean oilo bat jan dit misiolariak.

Gizon batek galdetu zion:

— Ez al da hobe izango hurrengoan bi fraile ekartzea, bakoitzak oilo erdi jango dutenak?

EUSKARA - BAT

ALBISTUR - GIPUZKOA

BENTTA

Gaurko sail honetan Benta dugu nagusi. Izen-deiturak Julian Otaegi. Baina guztiek Benta deitzen zioten. Urte askotan Benta-Berri etxean bizi izan zen. Horregatik deitzen zioten Benta.

Benta Albisturren eta inguruetan ere famatua zen. Gaurko horrialdea harekin beteko dugu. Esku batean, eskuinean hain zuzen, hatz bat falta zuen. Norbaitek esaten zionean «ekar ezak (ezazu) bostekoa», Benttak esku ezkerra ematen zuen. «Bostekoa» eskua emateari esaten zaio.

— Ezkerra ematen al duk (duzu)? —galdetzen zioten.

— Ez al duk, ba, bostekoa eskatu? —ihardesten zuen Benttak.

CALZADOS MARTA

Bentta hau Tolosan ere oso ezaguna zen. Oso xelebre ibiltzen zen beti. Behin Tolosako denda bat ireki zuten. Oinetako denda. Dena hura «Calzados Marta» zen. Benttak izenburu hori bizkarrean hartu zuen eta kalerik kale ibili zen. Baina ortusik (hanka hutsik). Horrela egin zuen oinetako berrien propaganda.

ESTRAPERLOAN KOARTELERA

Gerra ondoan, estraperlo asko egiten zen. Benttak horretan ere asmatu zuen berea. Kutxa bat koskolez bete zuen. Koskola gaztainak eta abarrek edukitzen duen azalada. Kutxakada hura besapean hartu eta goardia zibilengana hurbildu zen apropos. Goardia zibilek alto eman zioten eta Bentta korrika abiatu zen. Tolosako kaleetan zehar korrika. Halako batean harrapatu zuten eta koartelera eraman zuten. Pakete koxkor hura ireki erazi zioten. Goardia zibilek harritu ziren. Den dena koskolez betea zegoen. Burla haregatik belarrondokoren bat eman omen zioten. Bentta pozik joan zen tabernara.

SAN GREGORIO

Albisturren bada ermita bat, San Gregorio izena daukana. Behin Bentta sagar mordo batekin dator. Ermita aurrean santuari esaten dio:

— Jauna, zaindu ezazu sagar zaku hau. Mandatu bat egin behar dut.

Benttak sagar zakua ermita aurrean utzi zuen eta joan zen. Tabernara segur asko. Itzuli zenean, ordea, sagarrak falta ziren. Santuari begira jarri zen eta esan zion:

— Hi ez haiz ez San Gregorio ez Don Gregorio. Ez eta Gregorio ere.

HARROBITIK DONOSTIARA

Bentta harrobira heldu zen. Norbaitek esan zuen:

— Benttak ere lana behar dik (du).

— Lana beharrezkoa da, baina nik ardoa behar diat (dut) —erantzun zuen Benttak.

Berriketan hasi ziren eta norbaitek oinetakoa kendu zion. Kendu eta bota ere bai. Gero bila ibili ziren, baina ez zuten aurkitu. Hanka bata ortusik eta bestea jantzirik geratu zen. Eta halaxe joan zen Tolosara eta gero An-

doaina. Semaforo batean trafikozain jarri zen. Agoazila etorri zen eta eztabaida gogorra atera zuten. Halako batean, Benttak bere oinetako bakarra atera zuen eta agoazilari erakutsi zion. Eta galdetu zion:

— Zer jartzen du hemen?

— Calzados Marta.

— Eta nik jazteko falta.

Nola edo hala trafikotik erretiratu zen. Gero Donostiara abiatu zen, oinetakoa eskuan zuela. Beraz, hankak ortusik eta oinetako bat eskuan. Donostian arreba bat zeukan eta han azaldu zen Bentta.

— Nola hator oinetakoak eskuan harturik? —galdetu zion arrebak.

— Hankatik kendu egiten dituztelako —erantzun zuen Benttak—. Eta beste gauza batzuk ere kentzen dituzte hor Tolosaldean. Horregatik etorri naun (naiz) Donostiara.

TXAKUR ZAIN

Bentta Donostiko arrebaren etxean zegoen. Haren auzo batek txakurra ekarri zuen. Ea pixka bat paseatuko zioten txakurra.

— Neuk egingo dut hori. Lan pixka bat ere egin behar du inoren etxean dagoenak.

— Kaka egiten duenean, ekarri —agindu zion txakur jabeak.

Bentta han ibili zen txakurrarekin atzera eta aurrera, Donostian zehar. Hiru egunetan ez zuen txakurrik entregatu. Halako batean eraman zuen eta txakur jabeak haserrez galdetu zion:

ARRASATE - GIPUZKOA

ARRASATEKO AGOAZILA

Arrasateko agoazila famatua da. Behin gure agoazila Bidezabal inguruan zegoen. Kotxe haundi bat geratu zen. Alemanak ziren. Txoferrak agoazilari galdetu zion:

— Aizu, jauna. Nondik joaten da Gasteizeruntz?

— Ba... Tokoloren etxetik aurrera —erantzun agoazilak.

Tokoloren etxea Arrasateko irteeran dagoen etxe bat da. Ederki enteratu ziren alemanak.

AGOAZILAREN JUSTIZIA

Beste behin ixtripu handia izan zen Arrasaten. Arrasateko auzo batean izan zen. Eguerdia zen eta jende mor-doa bildu zen han. Gure agoazila ere heldu zen. Bi txofe-

rrak eztabaida beroan ari ziren. Agoazila bien erdian jarri zen eta galdetu zien:

— A ver, señores! ¿Quién ha chocau primero?

PETROLIO GOZOA

Arrasateko auzo batean, bazen gizon bat, Loidi deitura zuena. Gizon garratza omen zen. Loidi hau «Cuatro vientos» baserrian zegoen bere lagunekin. Baserri honetan taberna bat zegoen. Hemen biltzen ziren herriko gazteak eta zaharrak. Loidik eta lagunek anisa edaten zuten. Bazkaldu zuten eta anisa edaten zuten. Halako batean, anisaren ordezt petrolio eman zioten Loidiri. Loidik zurrut bat egin eta esan zuen:

— Gogor samarra dago, baina ez dago hain txarra.

ANDREARI ZEPOA

Arrasatetar bat kexaz zebilen. Zer gertatzen zen? Esaten zuen:

— Hau da komedia! Andreak dirua kentzen dit eta ez dakit nola debekatu.

Beste arrasatetar batek esan zuen:

— Neuri ere horixe gertatzen zitzaidan. Behin sakelean zepoa ipini nion eta kito.

ZER DUK HAU?

Arrasatetar bati itzargailu bat erregalatu zioten. Lagun baten aurrean paketetxea ireki zuen. Lagunari galdetu zion:

— Zer duk (da) hau?

Lagunak tresnatxea hartu, kuerdari bueltak eman, be-larrian entzun eta esan zuen:

— Gatzontzia edo arratoneria.

MANE ETA JORGITO

Mane eta Jorgito mutiko famatuak ziren Arrasaten. Biak txikiak eta aldrebesak ziren. Portaloi ondoan etxe berri bat egina zegoen. Mutikoek kobrea harrapatu zuten. Hurrengo egunean Arrasate guztia telefono gabe. Etxe berriko kableak ere hala-hola zeuden. Manek eta Jorgitok zati galantak eraman zituzten.

Beste behin Mane eta lagunak erreka bazterrean zeuden. Manek esan zuen:

— Zeinek harri handiagoa bota!

Mane txikia zen. Harririk handiena bota zuen eta be-ra atzetik errekarra.

KOMUNIO BELTZA

Manek lehen jaunartzea edo komunioa egin zuen. Traje zuria egin zioten. Amak argazkiak ateratzera eraman nahi zuen. Halako batean, Mane falta zen.

— Non dago gure Mane? —hotsegiten zuen amak.

Bila hasi ziren eta Mane lantegi batean aurkitu zuten. Ikatza deskargatzen ari zen. Traje zuria polito zegoen.

HARAKINA ETA IJITOAK

Olatxok harategia zeukan. Behin ijitoak etorri ziren harategira. Saski bat zekarten. Saskia azaz betea zegoen. Eta gainean marmita handi bat. Gauza asko eskatu zuten. Denetik eskatu zuten. Olatxo harakinak pentsatzen zuen:

— Nola ordainduko ote dute hauek?

Harakina badaezpada ernai zegoen, haizkora eta guzti. Ijitoek kontua eskatu zuten.

— Honenbeste —esan zuen harakinak.

— Esa calamidad me ha robado todo! —hotsegín zuen ijito batek—. Perdóne. Ahora mismo volvemos. Dejamos aquí la marmita.

— Tira, ba! —pentsatu zuen Olatxo harakinak—. Jeneroak hemen daude.

Ordubete pasatu zen eta ez zen inor etortzen. Olatxok pentsatu zuen:

— Hauekin ez dago gauza onik. Neberan sartu behar ditut gauzak.

Joan eta marmita hutsik zegoen. Azpitik zuloa zeukan.

TXISPAS ETA PITI

San Frantziskoren elizak nitxoak ditu aurrekaldean. Bi zulo zeuden, baina santurik ez. Gaueko hamabietatik aurrera beti ziren eztabaidak:

— Hor zerbait falta da. Hor zerbait jarri behar da.

Behin, Gabon Zahar gauez, Txispas eta Piti igon ziren. Batak Realaren eta besteak Bilboren kamiseta zeramaten. Eta han jarri ziren, bakoitza bere nitxoan. Aspaldiko ametsa egia zen: nitxoak beteta. Gabon Zahar goizaldea zen eta jende guztia han zebilen «Urte berri, bizi berri».

ASTEASU - GIPUZKOA

IARTZA MEDIKUA

Asteasuko Zazkarate baserria, mendian dago. Duela urte asko, gaua zen eta negua gainera. Elurra zegoen. Norbait ate joka ari zen, zalaparta handiz. Etxeko andrea leihora jaiki zen. Galdetu zuen, baina inork ez zuen erantzuten. Jaitsi zen eta ate ondoan, txerri tokian, intziriak entzun zituen. Hurbildu zen eta txerri askan haur bat topatu zuen. Oihaletan bildurik zegoen haurtxoa. Andreak haurra jaso eta etxean hazi zuen. Haur hura hazi zen eta mutil bikaina egin zen.

Karlisten gerran hamazortzi urte zeuzkan eta gerrarako izena eman zuen. Zaletasun handia zeukan sendatzeko. Sendakizunak egiten zituen. Mutila oso estimaturik zegoen. Gero tropa liberalak sartu ziren eta Frantziara aldegin behar izan zuen. Han, ospitale batean, lana eskatu zuen. Oso trebea zen. Oso maitatua ere bai. Ikasi eta lan egiten zuen.

Garai hartan jende asko joaten zen hemendik Amerikara. Gure mutilak ere harako bidea hartu zuen. Han mediku falta handia zegoen. Asteasuarra haundi egin zen

Amerikan. «Doctor Iarza» zen. Ospitale bat jaso zuen eta jaun handia zen.

Amaordeari behin abisua bidali zion:

— Laster joango naiz etxera. Badaukat itzuli bat egiteko gogoia.

Iartza jauna Asteasura etorri zen. Baserrira joan zen eta amaordeari esan zion:

— Hemen bakarrik eta gaizki zaude. Herrian jarriko zaitut.

— Nola biziko naiz, ordea, herrian? —galdetu zuen amak.

Dirua esan nahi zuen. Baina semeordeak herrira eka- rri eta han jarri zuen ama. Baserrian miserian bizi izan zena, orain kalean ederki zegoen. Handik urte batzuta- ra, beste bisita bat egin zuen Iartzak. Amak atea ireki eta esan zuen:

— Hemen nire semeordea.

— Semeordea ez. Semea, ama! —esan zion Iartzak.

Hark etorri eta lehen lana hauxe egin zuen: hilobia amarentzat. Lau hilobi eginak zeuden. Iartzak lau haie- tatik bat hautatu zuen. Atzeko harlauzan idatzi zuen: «Allende los mares...»

Ama edo amaordea hantxe ehortzi zuen gero.

BENETAKO AMAREKIN

Behin Iartza medikuak bere benetako amarekin topo egin zuen. Etxera etorri zen. Amaordea pozik zegoen, esanez:

— Mutila badator.

Bitartean egiazko ama agertu zen. Baina mutilak amari esan zion:

— Nola zu nire ama? Nola abandonatu nauzu?

Benetako amak burua makurtu eta etxera joan behar izan zuen. Azpeiti aldekoa omen zen emakumea. Atea jo eta Zazkaraten utzi zuen haurra.

ALABA ERE BAI

Iartza jauna Ameriketara ezkondu zen. Amaordea hila zen aspaldi. Egun batez ezkonberri batzuk heldu ziren Asteasura. Amerikanoak ziren. Andre gazteak galdetu zuen:

— Non da «Umore ona» izena daukan iturria?

Jesus Otegi mutil gaztea gertatu zen han eta hark esan zion. Gero andre gazteak azaldu zuen noren alaba zen. Aitak esan omen zion:

— Joan Asteasura eta iturri hartatik ura edan.

— Eta Zazkarate? —galdetu zuen berriz andre gazteak.

— Hura! —erakutsi zion Jesus Otegi.

Honek orduan hamazortzi urte zituen. Orain laurogeita zazpi ditu. Ez dira, beraz, atzoko kontuak. Baina oso ondo gogoratzen da zer andre gazte ederra zen hura. Bere aitak jaso zuen baserri zaharra ikusi eta Amerikara itzuli ziren.

IARTZAREN MORROIA

Urnietan bada baserri bat Urbieta izena daukana. Jesus Otegi baserri hartatik sagarra ekartzen zuen. Etxeari begiratzeko, amerikano bat zegoen han. Otegi harekin hizketan hasi zen eta hain zuzen, Iartzaren etxean morroi egona zen. Honek kontatu zion Otegiri nola Iartzaren alabak senargaia egin zuen.

Mutila abiadorea omen zen. Neskaren familiakoek ez zuten harekin alaba ezkonzerik nahi, arriskugarria zelako. Negutegi bat zeukaten eta morroiak neska-mutilei esan zien:

— Negutegiko giltza emango dizuet.

Hala ezkutuan elkar ikusten zuten neska-mutilek, morroiari esker. Denbora asko egin zuten martxa hartan. Azkenean etxekoek etsi zuten eta ezkontza hura onartu zuten. Etxe hartan zaldiak ziren. Neska zaldi gainean ibiltzen zen. Morroiak laguntzen zion zaldi gainera igoten. Ezkondu eta gero ere, berdin lagundu behar izaten zion. Gizon berriak esaten omen zion:

— Oye, vasquito. No mires arriba.

Morroi hura diru pixka batekin etorri zen Euskal Herrira. Hemen bizi nahi zuen. Hemen ezkondu zen. Baina ez zebilen berak nahi bezala. Etorri aurretik, Iartzak esan zion:

— Nahi duzunean etorri. Hemen duzu etxea.

Hitz horiek gogoan zeuzkan morroiak eta Urnietatik berriz Amerikara joan zen bere andrearekin.

ATAUN - GIPUZKOA

SANANTON ETA SEMEA

Sananton famatua da Ataunen eta inguru guztian. Sanantonen semea Olazagutian morroi egon zen. Aitak eraman zuen mutila. Orduan erdaraz ikastera bidaltzen zituzten mutilak erdal herrietara. Mantenua atera eta erdaraz ikasi. Goardia zibilek Saltsamendin alto eman zioten eta galdetu:

— Dónde van ustedes?

— Bernardo Olazti morroi —erantzun zuen semeak. (Olazti edo Olazagutia). Olaztiko Bernardoren etxera morroi, esan nahi zuen mutilak.

— Qué dice usted? —galdetu zuten goardia zibilek.

— Mutil! —esan zion Sanantonek semeari—. Aldegin ezak (ezazu) hemendik. Hauek ez diate (dute) erdaraz konprenitzen.

MARTIN ETA JULIAN

Julian Zaharra eta Martin Olea «Sutegi» izeneko tabernan zeuden. Elkarrekin bazkaldu zuten. Ederki betirik zeuden, bai janez eta bai edanez.

— Bazkaldu al duk? —galdetu zion norbaitek nagusiari.

— Nola bazkalduko diat (dut), ba, hauekin? —erantzun zuen nagusiak.

Martin lo zegoen mahaian. Julian itzarrik (esna) zegoen. Nonbaitetik azufre pixka bat atera zuen. Azufre hura mahaian ipini zuen, Martinen sudurren parean. Martin gaixoa itzarri zen eta ordu erdian doministikunka ekin zion. Mozkorra ere joan zitzaion.

— Upela garbitzeko balio badu, honen barrua garbitzeko ere balio izango du —esan zuen Julianek azufreagatik.

MARTIN GAIZKI

Martin Olea gaizki zegoen. Hiltzeko zegoen gaixoa. Gaumahaian alkohola zegoen. Alkohol botila bat, indizioak emateko. Martinek hartu eta glu-glu-glu edan zuen botila hura. Norbait tarteka gelara etortzen zen eta galdetu zion:

— Zer moduz?

— Orain poliki. Edari horrek bizkortu nau.

— Zer edari?

— Hor egon dena.

Begiratu eta alkohol guztia edana. Baina Martin ez zen erre. Sendatu eta kalera berriz ere.

Beste behin ere Martin gaizki zegoen. Ohean zegoen. Julian Zaharra bisitatzera joan zen. Botila bat ardo eram zuen eta Martini esan zion:

— Edan ezak (ezazu) hau. Hauxe duk (da) hiretzat medizinarik onena.

Martinek gustora edan zuen botila ardo hura. Geroztik hiru egunera, Estankoan zen Martin. «Estankoa» San Gregorioko taberna bat da.

ZAPATARIA AZKONAR BILA

San Gregorion bada zapatari famatu bat. Hanka bata motza du, egurrezkoa. Baina ehiztari amorratua bera. Hamaika azaina badu egina. Azkonarrak artoa jaten zuen. Azkonarra piztia bat da. Artoa asko maite du eta gauez jaten du. Hura bildurtzeko, kusoak jartzen ziren soroan. Kusoak, mamua, txorimaloa... Izen asko du honek. Zapataria gauez joan zen. Soro bazterrean zain zegoen. Ilargia zen. Azkonarrak ilargitan pozik ibiltzen dira. Soro barruan kusoak zeuden. Halako batean kuso bat martxan ikusten du zapatariak. Harritzen da eta esaten du:

— Beste mundukoak badirela esaten dute eta hauek izango dituk (dira).

Kuso haundia zen. Gizon haundia ematen zuen. Gizon haundi hura berarengana zetorrela ikusten zuen zapatariak. Bildurtu zen. Ihes egiteko ere ez zegoen ondo, hankamotza baitzen. Gizon haundia erdibitu egin zen. Erditik moztu zen. Azkenean ia zapatariaren hanketan geratu zen eta zigarroa egiten hasi zen. Zapatariak pentsatu zuen:

— Susto ederra eman didak (didazu), baina heuk (zeuk) ere hartu behar duk (duzu).

Atzetik joan eta gerritik heldu zion. Besteak eskope-ta bertan utzi eta ihesari eman zion. Zapatariak hotsegin zion:

— Joxe Migel!! Neu naiz, neu naiz!

Biak azkonar bila joanak ziren. Joxe Migelek kusoa kendu zuen, azkonarra ez izutzeko. Hortik etorri zen komedia guztia.

GURE LABEAN JAINKORIK EZ

Bazen mutil bat, Patxi izenekoa. Apur bat gizaixoa zen mutila. Apaizak adarra jotzen zion. Hala gozatzen zuen apaizak. Behin Patxi txartel bila joan zen. Orduan, komunioa hartzeko, txartela behar izaten zen. Txartela bale bat bezala zen. Baina txartela apaizak ematen zuen. Horretarako dotrina edo katixima jakin behar zen. Behin Patxi amarekin joan zen txartel bila. Dotrina pixka bat ikasi zuen, amak esplikaturik.

— Patxi, dotrinarik ba al dakik? (dakizu) —galdetu zion apaizak.

- Bai, jauna —erantzun zuen Patxik.
- Jainkoa zenbat lekutan dago? —apaizak.
- Leku guztietan —Patxik.
- Zuen labean ere bai? Bero egongo duk (da) han!
- esan zuen apaizak, adarra jotzeko.
- Ez, jauna. Gure labean ez! —erantzun zuen mutilak.
- Nola ez, leku guztietan badago? —apaizak.
- Ez, jauna —bukatu zuen Patxik—. Gurean ez dago laberik. (Gurean: gure etxean).

AZPEITIA - GIPUZKOA

KEIXETAREN MUNDUA

Keixeta oso famatua zen Azpeitialde guztian. Oraindik ere haren ateraldiak gogoan daude. Eta gero ere egongo dira. Behin Keixetari munda (multa) bota zioten. Hiru mila pezetako munda. Semeak gerran eta garai haietan ez zen diru gutxi. Emeterio sasi abokatua edo horrelako zerbait omen zen. Honek kobratu behar zuen munda. Ordaintzeko orduan, Emeterio agiria egiten hasi zen. Keixetak esan zion:

— Ez, Emeterio. Ez dago agiri beharrik. Hau ez zai-
gu ahaztuko.

KEIXETA ETA AMENABAR

Keixeta Arria Zaharraren erakuslea zen. Arria Zaharra edo Arria Lehenengoa haizkolari handia izan zen. Amenabar Arriaren sozioa zen. Orduan Amenabarrek

haizkora hartu zuen. Enborra ebakitzen garboso hasi zen. Keixetak albotik esan zion:

— Bejondaizula, Joxe. Nik uste baino hobea zaude. Baina zeuk uste baino txarragoa.

DIRUA NOLA ATERA

Keixeta haizkolaria zen eta herririk herri ibitzen zen. Aurrezki Kutxa edo «Caja de Ahorros»ek baserritarrei laguntza eskaintzen zien. Honelako baldintzak, honenbeste diru, honenbesteko interesak eta abar. Orduan auzoko baserritar batek Keixetari esan zion:

— Aizu, Keixeta. Zu munduan asko ibiltzen zara eta jakingo duzu agian. Zer egin behar da «Caja de Ahorros»tik dirua ateratzeko?

— Sartu! —erantzun zuen Keixetak.

DEABRUREN «VUELTA ESPAÑA»

Bada beste azpeitiar berezi bat, «Deabru» esaten diotena. Mundu guztiak «Deabru» goitizenez ezagutzen du. Deabru hau gerran abertzaleen aldetik ibili zen. Ibili bakarrik ez. Aurre samar ibili ere. Bide luzeak egin behar izan zituen Spainian zehar. Lehenbizi gudari eta gero prisonari.

Hauek honela, urte batez Langarikak «Vuelta España» irabazi zuen. Bi mila pezetako saria jaso zuen. Azpeitiar batzuk eztabaida beroan ari ziren. Batzuk diru gutxi zela esaten zuten. Beste batzuk berriz, asko zela esaten zuten. Hartan, Deabru heldu zen eta galdetu zioten:

— Zuk zer deritzazu? «Vuelta España» irabazteagatik, bi mila pezeta asko al da?

— Joder! —hotsegin zuen Deabruk—. Asko izango ez da, ba? Guk oinez egin genuen eta azkenean gartzelara sartu gintuzten.

OIOLARREREN SALDA

Bazen azpeitiar bat, «Oilolarre» esaten ziotena. Igande goiza zen eta Oilolarre mezatara joan zen. Meza ondoren tabernara joan zen. Beti bezala, Oilolarrek eta beste zenbait lagunek salda eskatu zuten. Saldarekin batera edo saldaren gainean, beste zerbait hartzeko ohitura ere bazuten. Okela egosia edo. Horregatik neskak Oilolarreri galdetu zion:

— Oilolarre, zuk zer nahi duzu saldaren gainean?

— Izarrak! —erantzun zuen Oilolarrek.

OIOLARRE ITZAIN

Oilolarre itzain ibiltzen zen. Harrobitik harria, hon-darra eta abar ekartzen ibiltzen zen. Iheltseroen zerbitzua egiten zuen. Uztarrarian idi-behiak erabiltzen zituen. Alde batean idia eta bestean behia.

Behin bidean bi apaizekin topo egin zuen. Erretorea eta beste apaiz bat. Erretoreak esan zion:

— Joxe Mari! Behin honezkero, zure idiak eta behiak bakarrik ere egingo lukete harrobiko joan-etorria.

— Bai! Berorrek (zuk) ere, hogeita hamar urte meza ematen ihardun arren, oraindik laguntzailea behar izaten du.

ALTZARTETIK BEASAINA?

Azpeitiko baserri batek Altzarte dauka izena. Bide batean gora joan eta azkenengo baserria da. Kontrabando garaia zen. Gau batez, kamioizale nafar batek bidea galdu zuen. Goizaldeko lauretan bidea galdurik zebilen. Joan eta joan, pentsatu zuen:

— Non arraio nabil ni? Galdetu egin beharko dut. Nori, ordea, ordu eta toki hauetan?

Halako batean goizeko lauretan, Altzarte baserriko atea jotzen du. Aitona bat irteten da eta nafarrak galde-tzen dio:

- Aizu, gizon. Besaina hemendik joaten al da?
- Bai! —erantzun zion aitona—. Gu joaten garenean, hemendik joaten gara.

TXULETAK ETA GIZALEGEA

Baziren Azpeitin bi mutilzahar. Harakinaren mandatuak egiten ibiltzen ziren. Behin harakinak txuleta bi eman zizkien. Taberna batera joan eta tabernandreaki esan zioten:

— Prestatuko al dizkiguzu txuleta hauek?

Bi mutilzaharrak mahaian eseri ziren eta laster heldu ziren txuletak. Bata nahiko haundiagoa zen bestea baino. Biak berriketan ari ziren. Inork ez zuen lehenbizi hartu nahi. Halako batean, bata aspertu zen eta haundia hartu zuen.

- Hik ez daukak gizalegerik! —esan zion bestea.
- Zer, ba? Heuk zein hartuko huen, ba?
- Txikia.
- Hor daukak! (daukazu)

GOIZUETA - NAFARROA

KUXIÑENeko AHARIA

Goizuetako etxe bat «Kuxiñene» deitzen da. Familia handia zen, baina denak neskak ziren. Hamaika edo. Auzoko etxe batean, ordea, denak mutilak ziren. Etxe honetan ardiak umatzen hasi ziren. Semeak aitari esaten dio:

- Aita, ardiak umatu dira. Bost edo sei edo.
- Urruxak al dira? —galdetzen du aitak.
- Ez. Aharikoak.
- Kabuen la puñeta! —hotsegiten du aitak—. Hurrengo urtean Kuxiñeneko aharia ekarri beharko dugu. (Hango gizona esan nahi zuen).

IAZKO EGUTEGIA

Baserri bateko gizon bat urtean lau aldiz edo jaisten zen herrira. Azkena eguberrietan izaten zen. Enkargu mordoxka bat egiten zuen. Dendako nagusiak esan zion:

— Beno, Iñizio. Zu beste hiru edo lau hilabetetan ez zara etorriko. Zein egunetan bizi zaren jakiteko, egutegi bat emango dizut.

— Ez, gizona! —erantzun zion besteak—. Lehengo urtekoa ere oso-osea daukat oraindik.

MOZKOR PAREA

Bi goizuetar mozkortu ziren. Eguna elkarrekin pasatu zuten tabernan. Goizaldeko bostetan edo, etxera abiatu ziren. Bata ez zen gauza eta besteak bizkarrean hartu zuen. Etxera heldu eta atarian amak:

— Zertan zabilzate?

— Hementxe. Hau ez zegoen etortzeko moduan eta ekartzera etorri naiz.

Barrena sartu, gizona han utzi eta mozkor sana bueltan abiatu zen. Hariztitik bueltatxo bat eman zuen. Herrira heldu zen eta hura ustekabea. Beste mozkorra bera baino lehenago etorria zen berriz herrira.

NOLA ORDAINDU

Kontratista batek zortzi edo hamar mutil zeuzkan lanean. Baina ez zien mutilei ordaintzen. Zorrak zeuzkan. Egun batez mutilek esaten diote:

- Gaur ez badiguzu ordaintzen, bertan hilko zaitugu.
- Ni hiltzen banauzue, nork ordaindu behar dizue?
- erantzun zuen kontratistak.

ARROSARIOA ETA SOLOMOA

Baso lanean ari ziren. Arrosarioa erreztatzeko ohitura zeukaten. Mutil berri bat heldu zen lanera. Iluntzean galdetu zuen:

— Arrosarioa erreztatu behar al dugu?

— Arrosarioa oso ona duk (da) —erantzuten dio agureak.

— Uuum! —hotsegiten du mutilak—. Solomo hura koipe gorri gorriarekin!

Gero agure hark apaizari galdetu zion:

— Jauna. Badaukat zuretzako moduko galdera bat. Zer iruditzen zaizu hobe? Arrosarioa ala solomoa koipe gorri gorriarekin?

— Biak onak bata bestearen ondotik —erantzun zuen apaizak.

IZURTZA - BIZKAIA

AZERIEN MODUAN

Gizon bat txahalarekin zihoan. Goizean goiz zihoan. Etxe batean dena zaintzen zuten. Dena jakin nahi izaten zuten eta dena zelatatzen zuten. Goizean emakumea balakoian zegoen. Txahaldun gizona handik pasatu zen eta esan zion:

- Egun on, Petra.
- Baita zuri ere.
- Ondo lo egin al duzu?
- Bai. Ederto.
- Azerien moduan?
- Azeriak nola lo egiten du, ba?
- Buztana hanka artean sartuta.

FRAILE BATZAILEARI

Frailea etxerik etxe batzen ibiltzen zen. Bernaberen etxera heldu zen.

— Tan, tan, tan!

— Bernabe! —esan zion andreak—. Zoaz atera. Baten bat jotzen ari da.

Bernabe atera irten zen. Frailea ikusi zuen eta galde-tu zion:

— Zer dakarzu, ba?

— Ni batzera nator —erantzun zuen fraileak.

— Zer batzen duzu, ba?

— Indaba edo artoa edo...

— Zeuk ereinda badaukazu, batu ezazu.

— Beno! —esan zuen fraileak duda-mudan—. Arraul-tzeak ere batzen ditut.

— Oilategia non daukazu, ba?

MULTAREN ORDAINA

Saturek zakuzko trajea egin zuen. Botoi zuriak ipini zizkion. Paparrean lore bi ipini zituen ezker eta eskuin. Batean lore gorria eta bestean berdea. Beraz, zuri, gorri eta berde. Durangora joan zen eta alto eman zioten. Satur nahiko ezaguna zen lehendik ere. Multa bat bota behar zioten.

— Nik ez dut multarik ordainduko! —esaten zuen Saturrek—. Zakuz jantzi behar eta gainera multa ordaindu?

— Eta kolore horiek zer?

— Gurean ez dago beste botoirik.

— Eta lore horiek?

— Gure lurretan honelakoxeak daude.

Saturrek ez zuen inola ere ordaindu nahi. Goiko agintari bat etorri zen eta Saturri esan zion:

— Hobe duzu ordaintzea. Badakigu basa abereak badituzula.

— Bai? —txilio egin zuen Saturrek—. Mugarran daude. Joan eta harrapatu!

Mugarra Mañari gaineko landa handi bat da, haitz handiz inguratua.

KAPI ETA GARIBALDI

Behin Kapi eta Garibaldi traktorean jarri eta Durangora joan ziren. Larrinatxun ederki afaldu eta Jaitokira joan ziren. «Jaitoki» hau kafetegi bat da. Durangoko Ezkurdin dago, pilotalekuaren ondoan. Hara sartzeko, maila batzuk igon behar dira. Gure mutilak ez ziren bildurtu. Traktore gainean, kinkirrin kankarran, mailak igon eta aurrera, arkupeetan zehar. «Jaitoki» kafetegiko atean traktorea utzi zuten. Heurek traktore gainetik kafetegi barrura salto egin zuten. Inork ezin zuen kafetegira sartu. Ez eta irten ere. Ez sartu ez irten.

— Hi, ken ezak (ezazu) traktore hori —agindu zuen kafetegiko nagusiak.

— Hi, ekar ezak motoserra —agindu zion traktoredunak lagunari—, beste hanka ebakitzeko.

Nagusiak hanka bata herrena baitzuen. Hantxe egon ziren mutilak hiruren bat ordu. Traktorea atean. Ez barrura ez kanpora. Nahikoa egin zutenean, traktorea martxan sartu eta joan ziren. Ezkurdin gora, mailak jaitsi eta Lapikonetik etxera.

TXAPARRO ETA JOSE JOAKIN

Txaparro eta Jose Joakin «Citroen» zahar batean zihoazen. Autoak itzuli egin zuen eta han geratu ziren bazterrean.

— Zer? —galdetu zioten elkarri.

— Ezer ere ez!

Ez zuten ezer egin. Auto hartan gauza haundirik ezin zen egin. Autoa zuzen ipintzen hasi ziren eta:

— Hi! Oilo bi hemen!

Autoak oilo bi harrapatu zituen azpian. Orduan biak haserretu ziren. Madrazo etxe aurrean zegoen eta ikustera etorri zen. Txaparro eta Jose Joakin zarataka hasi ziren:

— Zer gertatzen da? —galdetu zuen Madrazok.

— Zer egin dugu, ba? —hotsegin zuen Txaparrok—. Oilo bi hil eta alanbrea apurtu.

— Ba, presta itzazu! —esan zuen Jose Joakinek—. Atoan (berehala) jan behar ditugu.

Oilo biak Larrinatxun jan zituzten eta Pepe eginda etxera joan ziren.

AIREPLANOKUMEAK

Martinek gezur izugarriak asmatzen ditu. «Euskara-Bi»an datoz beste batzuk. Txikitatik zeukan grina hori. Eskolan zebilen. Orduan txori habiak bilatzeko afan haundia zegoen mutikoen artean. Apiriletik uztaileira hori zen mutikoen ardura nagusia: txorikumeak. Behin Martinek hauxe esan zuen eskolan:

— Atzo ez dakizue zer topatu nuen. Ira ebakitzen ari ginen. Zeozer ikusi nuen han. Joan nintzen eta aireplano habia, aireplanokumez betea.

Eskolako mutikoak harritu ziren. Denak joan ziren gero bila. Apenas ezer aurkitu zuten.

MALLABIA - BIZKAIA

DORO ETA ALOGEREKOAK

Doro Arrietatik morroi etorri zen Mallabira. Gero Mallabiko neskazahar batekin ezkondu zen. San Joanak ziren eta artajorran ari ziren. Auzoko bi gizonak belarra ebakitzera joan behar zuten. Dororen belarrak ebakitzera. Alogerean bezala. (Aloger: alokairu, jorna).

— Seg a bat ekarriko al duk? (duzu) —galdetzen diote alogerekoek.

— Bai. Ermura joan eta ekarriko dizuet —erantzuten du Dorok.

Iluntzean «Hanbre» tabernan elkartzeko geratu ziren. Gaur aurrera zihoan eta Doro ez zen agertzen. Halako batean agertu zen:

— Non egon haiz? —galdetu zioten.

— Gailega batekin batu nauk (naiz) eta tiobiboetan ibili nauk —erantzun zuen Dorok.

Eguna argiturik etxeratu ziren. Zuzen belardira joan ziren gizonak. Seg berriak ziren eta pikatzen hasi ziren. Bien bitartean, Doro etxera joan zen eta kanpazoa eta zahatoa ekarri zituen. Gero hamarretakoa egiteko. Hala ere galdetu zuen:

— Orain ala gero?

— Ekarri —erantzun zioten mutilek—. Jango dena jan eta egingo dena egin.

Hamarretakoa egunsentian jan zuten eta esan zioten:

— Zuk urdaiazpikoren bat ere edukiko duzu, ba, Doro.

— Bat badaukat, baina eguerdian ere zerbait jan beharko da.

— Eguerdian belarra ebaki behar dugu. Behin jaten hasirik, dena alderdi batera egitea hobe da.

Dorok udaiazpikoa ekarri zuen. Mutilak jaten ari ziren. Txatal (puskatxo) bat utzi zuten eta Dorori esan zioten:

— Hor dagoen urdaiazpikoa epeldurik ekar ezazu.

Doro etxera joan zen eta urdaiazpikoa prijiturik ekarri zuen.

— Doro, hor Gipuzkoa aldean zer ohitzen den ba al dakizu? —galdetzen diote mutilek—. Arraultze freskoak!

Doro berriro etxera joan zen eta dozena bat arraultzekin etorri zen. Segalariek eguerdian ez zeukaten, ez, goserik.

AURTEN EZ DAGO HARBIRIK

Mutilak Dororenean lanean ari ziren. Simaurretan ari ziren. Gero Dorok esan zien:

— Gaur etxera joan beharko duzue, ba. Andrerik ere ez zeukeat (daukat) eta.

— Ardorik ba al daukazu?

— Bai.

— Ogirik?

— Bai.

— Ba, ez da ezer gehiago behar —esaten dio gizon batek.

— Urdaiazpikoren bat ere edukiko duzu zuk —esaten dio besteak.

— Bai. Bat bazeukeat (badaukat), erdi jana.

— Orduan ez da andrearik behar.

Dororen etxean geratu ziren gizonak. Garrafoi ardoa hustu zuten.

— Honek beste urdaiazpikoren bat ere edukiko dik (du) —esaten diote gizonek elkarri.

Jan zuten. Ezin zutena, katuari mahaipera eta abar, ezkutatu zen eta haserretu ziren.

— Zertan ari haiz, lotsagabe hori? Dena jan didak! (didazu) —esaten zioten elkarri.

— Ez haserretu, mutilak —esan zien Dorok—. Berria ekarriko diat (dut).

Gizonak ederki beterik joan ziren etxera. Berrero ere Dorok harbi ereiteko dei egin zien. Montxorrean oilarra jateko ziren, bietarik bat sukaldari zela. Bezperan pata-tak ateratzen ibili ziren eta ardoak eta urdaiazpikoak amaitu zituzten. Dorok morroia abisu honekin bidali zien:

— Dorok esan du harbirik ez duela erein behar eta ez etortzeko.

ERROMERIATIK JUEZERA

Bi mallabiar, ihauterietan, Maltzagako erromeriara joan ziren. Han neska birekin juntatu ziren. Mutil batek neska bati eskua sorbaldan ipini zion. Neskak orduan ihes egin zuen, abrigua bertan utzirik. Haiek garaiak! Bihamonean mutil hura pinu sartzen ari zen mendian. Lagun batek abisu hau ekarri zion:

— Poliziak etxean dauzkak (dauzkazu). Agudo joateko!

— Poliziak etxera? —hots egin zuen mutilak—. Neska sorgina!

Poliziek bi mutilak Eibarrera eraman zituzten. Deklarazioak hartu eta etxera berriro. Baina gero juizioa heldu zen.

— Jo egin al zenituzten? —galdetu zien juezak mutilei.

— Guk jo? Ez horixe! —erantzun zuten.

— Ba, jo egin zenituztela diote —berriro ere juezak.

— Zuek zer diozue? —galdetu zien gero neskei.

— Jo egin gintuzten eta gainera beltzuneak atera —esan zuen neska batek.

Orduan mutil batek zutitu eta esan zien:

— Beltzunerik baldin badaukazue, erakutsi, pagatuko zaizue-ta.

Juezak barreari eman zion eta hantxe amaitu zen juizioa. Abriguarena hogei pezeta utzi eta mutilak etxera.

GELATIK IHES

Mallabitar tratulari bat Markinako feriara joan zen. Barinagan bazkaldu zuen eta bueltan ordaintzeko utzi zuen. Barinagan Gailastegi harri jasotzailea zegoen. Haren arrimura, beste jende asko zegoen Barinagan. Tratularia bueltan etorri zen eta etxeoandreari esan zion:

— Hemen asto jende asko dago eta emaidazu gelako giltza.

Gizon kurioa bera, halako jendartean ez egoteko. Etxekoandreak giltza eman zion. Besteak barrutik atea itxi zuen eta leihotik alde egin zuen, bazkaririk ez ezer ordaindu gabe. Gero etxeoandrearen errosarioa ez zen batere bedeinkatua izan.

BELARRONDOKO BATEN AFARIA

Bi mallabitarrek afari ederra egin zuten. Gazteak ziren eta entrama zorrotza zeukaten. Baita gose denbora ere. Jan zuten ederki eta edan zuten hobeki. Kafeak eta?

— Baita. Ekar dena osorik.

Kontua ekarri zioten eta orduan koloreak aldatu ziren. Orduan gogoratu ziren diruaz. Sakelei eragin zieten, baina han ez zen dirurik. Bien arteko diruak mahai gainera atera zituzten. Afari erdia ordaintzeko ere ez zen

iristen. Batak besteari esan zion:

— Hi! Jo nazak (nazazu) belarrondoan.

Besteak jo zuen eta ihesari eman zion. Biak ihes joan ziren elkarren atzetik.

BIRAOA NOLA KENDU

Garizuma zen. Arbi loreak agertu ziren eta gizon bat konfesatzera joan zen.

— Zer dakarzu, ba? —galdetu zion apaizak.

— Betikoa, jauna. Bestela gauza haundirik ez daukagu, baina horixe ezin kendu. Biraoak bota behar. Ez dira haundiak, baina batzutan tamainakoak.

— Hori kentzea erreza duzu, gizona.

— Nola, jauna? Ez daki berorrek zenbat estimatuko dudana.

— Biraoa botatzen duzun bakoitzean, lehenen topatzen duzunari bost duro eman. Ikusiko duzu zer laster kentzen duzun.

Gizona elizatik irten zen. Harri puntaren batean behaztopo egin zuen eta biraoa bota zuen. Bost duro eman behar zituela oroitu zen eta beste birao bat bota zuen. Neska bat suertatu zen handik pasatzen eta gizonak bost durokoa luzatu zion.

— Zer da hau? —galdetu zuen neskak, harriturik.

— Apaizak esan dit bost duro emateko.

— Hari bai bost durotan —esan zion neskak—. Zuri hamar.

HIRURAK ETA BAT

Igande batez, mezatara joan behar zen orduan, andreak gizonari esan zion:

— Hirurak saiatu dira eta ezin dut elizara joan.

— Zeintzuk hirurak eta zertan? —galdetu zion gizonak.

— Apaiza, organujolea eta sakristaua. Badakizu zertan.

— Saiatu bakarrik?

— Ekin ere bai pixka bat —erantzun zuen andreak.

— Hori laster konponduko dugu —esan zuen gizonak—. Zuk hirurei hamar minuturen aldeaz dei egin.

Hurrengo astean apaizak tan tan jo zuen atea. Sartu zen, andrearekin jolasean hasi zen eta gizona atzetik agertu zen. Gizonak apaiza komodan sartu zuen.

— Isilik eta geldi hor! —agindu zion, giltzez itxirik. Hamar minututara organu jolea etorri zen. Gizonak hari ere kokotetik heldu zion eta ohapean sartu zuen. Hura ere isilik eta geldi. Sakristaua falta zen. Ez zuen askorik tardatu. Hau tinan sartu zuen, biluzik eta buruz behera. Orduan gizonak apaizari esan zion:

— Hortik irten nahi baduzu eta herriak jakiterik nahi ez baduzu, urtebeteko diruak utzi behar dituzu.

Apaizak pozik eman zuen urtebeteko dirua. Gero organujoleari berdin esan zion. Honek ere pozik eman zuen eskatua. Sakristaua zen hirugarren. Honi ere berdin esan zion. Baina sakristauak ez zeukan dirurik. Orduan gizonak kandela bat ipurdian sartu zion. Ipurdiz gora zegoen

gaixoa. Kandela piztu zuen eta haren malkoak tan-tan-tan ipurdira erortzen ziren. Sakristaua bizikletan zebilen.

— Beno! Nahikoa ordaindu duzu.

Sakristaua tinatik atera zuen eta hirurak etxera joan ziren. Apaizaren eta organujolearen diruekin, andre-gizonek soineko berriak erosi zituzten. Hurrengo igandean ederki jantzirik joan ziren biak elizara. Aurrenengo aulki-keri eseri ziren biak.

Sakristauak kanpaiak jo zituen, organuak meza sarrera jo zuen eta apaiza aldarera irten zen. Orduan meza latinez eta herriari atzea emanda izaten zen. «Dominus vobiscum» esateko bakarrik bueltatzen zen apaiza. Buel-tatu zen, andre-gizon haiek ikusi zituen eta «Dominus vobiscum»en orde:

— Ederra hago, Maria! —kantatu zuen apaizak.

— Hik artoa eta nik garia! —erantzun zuen organu-joleak.

— Eta nik ipurdian aberia! —osatu zuen sakristauak.

TXAHAL KASKARRA

Gerra ostean gosea kentzen lanak ziren. Diru gutxi eta alimentu gutxiago. Txahalak hasten ziren, baina gehienak kaskarrak. Txahal bati begira denbora luzea egiten zen etxean, diru apur bat hartzeko. Mallabiko etxe batean txahal kaskar bat salgai zeukaten. Harakinak jakin zuen eta etxe hartara joan zen.

— Zer prezio? —galdetu zuen harakinak.

— Ez dakit, ba —esan zuen etxeko gizonak—. Aspaldion ez naiz ferian izan.

— Honenbeste?

Gizonak gehiago nahi zuen eta esan zuen:

— Ez. Haziko da.

Andreak barrutik «emaiozu» esaten zion.

Harakina joan zen. Gero berriz andreak gizonari esaten zion:

— Zergatik ez diozu eman?

— Diru gutxi zelako —gizonak.

— Baina derrigor behar dugu —andreak.

Gero etxeko mutikoa harakinaren atzetik bidali zuten.

— Aitak etortzeko esan du —esan zion mutikoak harakinari.

Harakina berriz etorri eta tratua itxi zuten. Biharamonean txahala eraman behar zen. Goizean goiz, aurretik eta atzetik heldu eta han zihoan ahuntza. Nolako ahuntza? Ez al zen, ba, txahala? Txahala bai, baina ahuntzaren antzekoa. Hiltegitara eraman, hil eta agur gure txahaltxoak. Gibela golkoan, soka gerrian eta odolez beterik etxera. Haiek ziren garaiak.

ARGIAK ETA BARRASKILOAK

Mallabiko etxe batean hiru neskazahar-mutilzahar bizi ziren. Etxe hartan behi bi ziren, Moro eta Apala. Auzoko lagun batzuk hauekin arbiak erein zituzten eta gero barraskilo jana. Gauean, afaltzeko, barraskiloak ziren. Trabakutik ardoa eraman zuten. Kantarako zahatoa zeu-

katen. Kantara batek hamasei litro dauzka. Zahato hari «jesuita» esaten zioten. Etxe hartan argi elektrikorik ez zegoen. Lagun batek esan zuen:

- Zergatik ez dugu argia ipintzen?
- Nondik? —galdetu zuten etxekoek.
- Berehalaxe egingo dugu.

Etxe ondotik tentsio handiko linea bat pasatzen zen. Hari edo kable abandonatuak zeuden han. Hariak hartu eta altatik lotu zituzten. Bonbila ipini eta neskazahar-mutilzaharrak zain zeuden. Halako batean argia. Bost minututan bizi-bizi argi egin zuen eta plot. Txiiiiirri! egin zuen, kea hasi zen, gero sua ere bai. Haizkoraz hariak ebaki zituzten eta etxea ez zuen suak hartu. Gero barraskiloak jan eta ardoa edan. Mutil batek etxeko mutilzaharrari esan zion:

— Turibio, kanpora joan eta txiza egin behar diagu (dugu).

Biak kanpora joan ziren. Gau iluna zen. Oraindik hariak altatik sutan zeuden. Hari hura apuntatu eta mutilak esan zuen:

— Horixe jo behar diagu (dugu).

Baina berak albora txiza egiten zuen. Turibio hasi zen. Baita eman ere. Gogorturik geratu zen bertan. Ezin zen askatu. Halako batean askatu zen eta esan zuen:

— Santísima Dios! Zer izan duk hori?

Etxe hartan gero, beste aproba bat egin zuten mutil hauek. Lapikoa urez bete zuten. Hari bat barrura sartu eta bestearekin albotik tripan ukitu. Konektatu zuten eta urak airean eta lapikoa sukaldan saltoka.

— Nora joiek hau? —esaten zuen Turibiok. (Joiek: zihoak, doa).

BILBOTIK BUELTAN

Denbora erlatiboa omen da. Batzurentzat egun bi behala joaten dira. Mallabitar batek esaten zuen:

— Egun bi esaten duzu, egun bi? Egun bitan munduak buelta bi ematen ditu.

Mallabitar hark buelta bi ez, baina bat ia osoa eman zuen egun bitan. Ganaduekin Bilbora joan zen. Egun bi egin zituen han. Bueltan Durangora heldu zen eta erdara ala euskara, zer egin ez zekien.

INTERMITENTE XELEBREA

Mallabitar bat Ermutik etxera taxisean etorri zen. Mutilak nonbait gau ona pasatu zuen eta taxisean etortzea pentsatu zuen. Etxe ondora heldu ziren eta taxistak esan zion:

— Ez dakit atzeko intermitentea badabilen ala ez. Iku-siko al duzu mesedez?

Mutila kanpora irten zen. Atzean jarri zen begira. Luzaro egon ziren hala. Halako batean taxista aspertu zen eta hotsegin zuen:

— Zer? Funtzionatzen du ala ez?

— Bai, ez, bai, ez, bai, ez... —erantzun zuen mutilak.

ERREPUBLIKA DATOR

Gerra aurrean errepublika izan zen. Errepublika no-
bedade handia izan zen. Batzuk gauza bat eta beste ba-
tzuk beste bat esaten zuten. Mallabira ere heldu zen berria.

— Errepublika dator! —esan zuen mallabitar batek.

— Zer duk hori? —galdetu zion beste batek.

Eta hark erantzun:

— Sueldos arriba, braguetas abajo!

MENDARO - GIPUZKOA

SAN ANTONIO TXIKI

Mendaron bazen ermita bat «San Antonio Txiki» izenekoa. Ermita hura aldapan dago. Mendaroar batek San Antoniori hiru txiki zor zizkion. Hiru txakur txiki, alegia. Txakur txikiak bost zentimo ditu eta txakur haundiak hamar. Pezeta batek, beraz, hogeit hamar txiki ditu. Orain ez dago honelako txanponik. San Antoniori, ba, hiru txakur txiki agindu zizkion. Zergatik? Mesede bat egin ziolako. Gizona gurdiaekin pasatu zen ermita ondotik. Gurrada bat egur zeraman. Ermita aurrean San Antonioren zorraz oroitu zen. Baina esan zuen:

— Ah! Hurrengoan emango dizkiat (dizkizut).

Hori esan eta gurdia petrilean behera erori zen. Ia ia, idiak ere petrilean behera joan ziren. Hura izan zen sustoa. Gizonak gurdia altxatu eta berehalaxe bota zizkion hiru txikiak San Antoniori.

KAFEA HARTUKO ZEN

Duela ia ehun urte, Mendaroko Kortabarri baserriko mutikoa amarekin Azpeitiko azokara joan zen. Oinez noski. Kortabarrin intxaur asko zegoen eta haiek saltzera. Mutikoak otarteko txiki bat eraman zuen eguerdirako. Arratsaldean, bueltan, erregatero batek tentatu zuen:

- Kortabarri! Bazkaldu al duk?
- Bai! —erantzun zuen mutikoak.
- Kafea ere hartuko zen.
- Ez! —ebaki zuen mutikoak lauki.

Erregateroak igarri zion bazkariarena gezurra izan zela. Gero etxean aitak esan zion mutikoari:

— Kaferik ezetz esan al diok (diozu)? Puruak ere bai esan behar hion (zenion).

TXARRUALDE APAIZA

Mendaron bazen aintzina «Txarrualde» esaten zioten apaiza. Ehizan ibiltzen zen beti. Behin eperrari tiratu zion eta ihes egin zion. Jose Lizundia ikatza egiten ari zen mendian. Txarrualdek esan zion:

— Karai, karai! Tiratu diot eta ez dakit nora joan den. Ikusi al duzu?

— Ez, ikusi ez, entzun jauna —erantzun zion Jose Lizundiak.

Gero Lizundiak esaten zuen:

— Arraioa! Eper harexen akordua neukan, ba, orduan!

IKAZKINAREN EGARRIA

Jose Lizundia hau ikazkina zen. Gautu zen eta egarri handia zeukan. Putzu batera makurtu zen. Zingira antzekoa zen. Saiak ere inguruan zebiltzan. Makurtu zen, belaunikatu zen eta ura glu-glu edan zuen. Gero esan zuen:

— Arraioa! Lehenengo ur tragua gozoa, baina azkenengoak gustu zaztarra eduki zian (zuen).

DIRUA ESKUAREAZ

Kortabarriko Domingo Elortza Ameriketara joan zen. Gabon batzutan handik anaiari dirua bidali zion. Mila eta berrogeita hamaika pezeta bidali zituen. Martxotik gabonak arteko dirua. Duela hirurogeita hamarren bat urte zen hau. Mendaron Domingok diru hori bidali zuela zabaldu zen. Lagun batek esan zuen:

— Hamaika gezur! Eskuareaz batzen ote dute han dirua?

DOÑA LONGANIZA

Mendaroko Agerre baserrian neska eder bat zegoen. Etxearen azpian erreka pasatzen zen. Mutil guztiek huraxe ikusi nahi izaten zuten. Errekan gora zirkun-zarkun etortzen ziren, harri punta guztiak joez. Behin neska eder hura Kortabarriko mutilari bidera irten zitzaion. Lukainka pare bat eman eta esan zion:

— Zuretzat eta amarentzat.

Mutila harro joan zen etxera. Kortabarrikoak itzain ibiltzen ziren. Agerreko baserri ondoan bazen lan bat egiteko. Kortabarriko mutilak lan hura hartu nahi zuen. Horrela neska egunero eta maiz ikusiko zuen. Baina neska-aren aita eta neba ere itzainak ziren. Hauek aurrea hartu zuten eta lan hura Agerrekoek egin zuten. Kortabarrikoak haserretu ziren eta hantxe amaitu zen ezkongaitza. Gero neska hari «Longaniza» ezizena jarri zioten. Lasturrera ezkondu omen zen neska hura.

ARRAIO HORI!

Jose Lizundia itzaina zen. Itzantzan ari zen basoan. Behin tantai haundi bat aurkitu zuen bidean trabes.

— Heup! —hotsegin zuen Lizundiak. Baina inork ez zuen jaramonik egiten. Ernegatu zen, haizkoraz tantaia

ebaki zuen eta bidea libratu zuen. Orduan ugazaba agertu zen eta esan zion:

— Gaizki egin duzu hori ebakitzeaz!

Jose Lizundiak erantzun zion:

— Gaizki egina bada, ondo egina bada, hori egina da. Arraio hori! Aida!

ZER IKUSI DUK

Mendaroko etxe batean anai mordoa ziren. Gaua zen eta sukaldean zeuden. Anaia batek gazteenari esan zion:

— Arraioa! Ikus ea zer denbora dagoen!

Mutikoa joan zen eta bueltan anaia zaharrak galdetu zion:

— Zer ikusi duk?

— Komediak!

— Zer ikusi duk?

— Arnon zehar euria.

U.E.U. - IRUÑEA

Gaur amaitzen da Udako Euskal Unibertsitatea Iruñeko Larraona ikastetxean. Talde batek bertsolaritza hartu du gaitzat. Hogeita hamabosten bat lagun dira. Talde honetan badira Euskal Herri guztietakoak. Gaurko horrialdea hauekin osatzen dugu. Batzuk beren herriko zerbait kontatu dute. Hona hemen zer.

ARRE ETA ZALDIRIK EZ (ATAUN-GIPUZKOA)

Sananton famatua izan zen Ataunen. Asteazken batez, Ordiziko feriara joan zen zaldiarekin. Egun guztia han pasatu zuen. Mozkortu zen eta iluntzean etxeruntz abiatu zen. Gaua zen. Bidean zihoan eta erori egin zen. Noizbait altxatu eta etxera heldu zen. Atea jo zuen eta emaztea irten zen atera. Emazteak atea zabaldu eta aurrera abiatu zen Sananton. Baina soka atean kateatu zen. Sanantonek zaldiari esan zion:

— Arre zaldia! Arre!

Hots eta hots eta arre eta arre. Baina zaldirik ez zen mugitzen. Sanantonek berriz ere hots egin zion:

— Arre! Horixe behar genikek (genuke). Atariraino etorri eta sartu ez.

— Baina Sananton! —esan zion emazteak—. Zaldirik ez daukazu hor.

Zaldia bi kilometro beherago zegoen, larrean galdurik.

KIROL BERRIA **(EA - BIZKAIA)**

Bazen Ean, Otei izeneko baserrian, kirolari famatu bat. Kirol berri bat asmatu zuen. Andres Otei Australian egon zen. Kirol hura kanguroengandik ikasi al zuen? Inork ez daki. Behin, Eako San Joan jaietan, meza nagusiaren ondoren, bere saioa egin zuen. Plazan muxika (melokotoi) latak ipini zituen. Banan banan, kolpe siku batez, ipurdiarekin apurtzen zituen guztiak. Gero intxaurrak ipini zituen. Hauek ere ipurdiarekin, banan banan, apurtu zituen. Andres Oteik pena haundi bat zeukan: olinpiadetan halako kirolik ez izatea. Gero baserri hura Olarrak erosi zuen. Amerikako arrantxo baten antzeko zerbait ipini du. Eta Olarraren lehenengo lana hauxe izan zen: etxe aurreko soroan intxaurrondo bat sartu. Zertarako?

PRIETO ETA EUSEBIO

(DIMA - BIZKAIA)

Emaldiko Prietok egun batzuk etxetik kanpora pasatu gura zituen. Auzokoei esan zien:

— Gure behiak zainduko al dituzue?

— Geureak zaintzea nahikoa dugu —erantzun zioten. Geureak ezin zaindu eta orain inorenak zaindu?

— Beno —esan zuen orduan Prietok—. Zuek zuen soroak zaintzen badituzue, gure behiek derrigor egon beharko dute gure partean. Ez daukate inork zaindu beharrik.

Dimako baserri batean behiak txahala egin behar zuen. Eusebiok argia kendu zuen. Baserriko andrea harengana joan zen. Eusebio argiaren arduraduna zen. Andreak esan zion:

— Eusebio, eman argia mesedez. Behia txahala egiteko daukagu.

— Behiak ez du txahala egiteko argirik behar —erantzun zuen Eusebiok—. Behar balu, Jainkoak kandela bat ipiniko zion atzean.

DENUNTZIA BERANDU **(GETARIA - GIPUZKOA)**

Getariar gizon batek beste bati esaten zion:

— Aizak! Enteratu al haiz? Gaztakapeko hondartzan bi neska titiak bistan.

— Ez duk egia izango! Ikustera joan behar diagu (dugu).

Hala zebiltzan bata eta bestea. Egunero hondartzara gizon mordoa joaten zen. Sei egun pasatu ziren eta herriko gehienak pasatu ziren. Orduan gizonek esan zuten:

— Hau gehiegi duk. Denuntzia sartu behar diagu (dugu).

Udaletxean denuntzia sartu zuten zazpigarren egunean. Ikustekoa ikusia zeukaten. Baina neskek ere zazpigarren egunean atseden hartzea pentsatu zuten eta zazpigarren egunean aldegin zuten. Ezkutatu ziren eta denuntzia alferrik. Denak ondo. Begiak ondo eta morala ere bai.

OILASKOAK ETA BEDEINKAZIOA **(EIBAR - GIPUZKOA)**

Apaiz bat baserriak bedeinkatzera joaten zen, gabon inguruan. Baserri batean beti oilaskoak ematen zizkioten. Urte batez elur handia zen. Apaiza ez zen baserrira igon.

Astebetera apaizak baserritarrari esan zion:

— Zer? Aurten ez didak (didazu) oilaskorik bidali.

— Ez zinen baserrira igon —erantzun zion baserritarrak.

— Nik behetik bota nuen bedeinkazioa —apaizak.

— Nik ere oilaskoak goitik bidali nituen. Ez al dira heldu?

ZIZURKIL - GIPUZKOA

HARRIKADA

Zizurkildar bati harrikada bat eman zioten. Min handia egin zion. Gero juezera joan behar izan zuten. Juezak esan zuen:

— Gizon honi harria bota diozue?

— Nik ez! —hotsegin zuen deituetariko batek—. Gainera ez zen harria. Zokorra zen.

— Ah! Herorrek galdu duk (duzu) heure burua. Nola dakik zokorra zela?

ALKATEA ETA IDAZKARIA

Zizurkilgo udaletxean dirua bildu omen zen. Baita zerbait sobratu ere. Alkateak diru hura nahi zuen. Idazkariak ere bai. Alkateak behia erosi nahi zuen eta idazkariak motoa.

— Beno! —esan zuen alkateak—. Tú comprar vespa, yo comprar vaca.

Gero idazkaria «Vespa» harexekin istripuz hil zen. Alkatea, berriz, behi batek azpian harrapatu eta leherturik hil zen.

DON MIGELEN SERMOIA

Don Migel apaizak esaten omen zuen:

— Eroaren arrazoia, bueltarik gabea.

Behin arrazoi eder hau bota zuen sermoitan:

— Kristau maiteok. Gezurra pekatua da eta ez dago esaterik. Baina egia kontuz-kontuz.

HONTZA ETA BELEA

Xebastian parrandaria zen. Jai gaua tabernan eman zuen. Goizean, etxera bidean, apaiza kanpai jotzen ari zen.

— Zer, Xebastian? Gaua pasatu al da? —galdetu zion apaizak.

— Bai —erantzun Xebastianek—. Gaur deskoidatu gara. Hontzak ez du jo eta igarri gabe joan zaigu.

Hurrengo egun batez, Xebastian tabernan zegoen. Apaiza ere hantxe zegoen. Apaizak galdetu zion:

— Zer, Xebastian? Gaur ere hontza deskoidatuko ote da?

— Ez! —Xebastianek—. Gaur belearekin batera erretiratuko da. (Apaizei «beleak» esaten zitzaien).

XEBASTIANEN ERREMOLATXAK

Beste behin ere, eguna tabernan argitu zitzaion Xebastian. Bera eta beste bat elizara joan ziren zuzen. Baina lagunak ez zuen Xebastian elizan ikusi. Hurrengo batean galdetu zion:

— Xebastian, lehengoan izan al zinen mezatan?

— Ez! —erantzun zion Xebastianek—. Bide azpiko erremolatzak ateratzen ibili nintzen. (Mozkorturik, sorora eroria).

KONJURU ZIHURRA

Urte batez, alfafari harrak egin zitzaizkion. Har plaga bat sartu zen belar horretan. Asteasuko Don Bitorio konjuruak egiten ari zen. Soro batean egin zuen eta norbaitek galdetu zion:

— Jauna! Har horiek denak akabatuko al dira?

— Eh? —hotsegin zuen Don Bitoriok—. Nik hankapean zapaltzen ditudanak bai.

ATSO ZAHARRA FORMAN

— Kaixo, Mikela! Zenbat urte dituzu? —galdetu zioten atso bati.

— Bi otxo ditut. Bi otxo.

— Eztabaida bat daukagu. Beste lan horretarako goa noiz joaten da?

— Ni baino zaharragoengana jo beharko duzue —erantzun zuen Mikelak.

PITAS HILEZKORRA

Pitas famatua da Zizurkilen. Gorrien sarjentua izan zen gerran. Metraila puskak gorputzean dauzka. Kotxe batek jo zuen, baina alferrik. Tabernatik etxera bidean, elurrak estalia ere agertu zen. Baina bizi.

Behin, bi botila txanpan eta baldea eskatu zituen. Botilak baldera hustu eta hankak garbitu zituen. Otartekoa (bokadiloa) eskatu eta ogia jan. Haragia zakurrari ematen dio. Puru bat erretzen eta beste hainbat puru txapelean erabiltzen ditu. Kopa bat nahiz kafe bat nahi badu, beti kafe osoa (konpletoa) eskatzen du. Horregatik edukitzen du hainbeste puru.

Beste behin, baso bat whyski, kokakola bat, koinaka eta bikarbonatoz basokada ura edan zuen. Asto lasterre-

tan ibiltzen da. Asko nahiz gutxi egin, garrafoitxo bat ardo ematen diote beti. Ezagutu nahi baduzu, pozik hartuko zaitu.

AMEZKETAKO APAIZA

Amezketako historio hau Zizurkilen entzun genuen. Apaizak neskamearekin «okerra» izan omen zuen. Lehen ere halako kasuren bat gertatua zen. Oker hura berak estali behar zuen. Bestela obispadutik kanpora desterratuko zutela esan zioten. Pentsatu zuen zer egin. Mutilzahar baserritar bati deitu eta esan zion:

— Nola zaude zu ezkondu gabe?

— Norekin ezkonduko naiz, ba? Ahaleginak egiten ditut, baina ez dut inor topatzen.

— Neuk egingo dizut bidea. Etorri bihar eta neska ederra hartuko duzu.

Mutilzaharra apaizaren neskamearekin ezkondu zen. Ezkondu eta hiru hilabetera, andreak haurra egin behar zuen.

— Bederatzi hilabete ez al dira, ba, izaten? —galdetu zuen gizonak.

— Zeuk jakingo duzu —erantzun zion andreak.

— Apaizari galdetuko diot.

Apaizarengana joan zen eta kasua azaldu zion. Apaizak esan zion:

— Ah, bai? Liburu zaharrak ikusiko ditugu.

Joan ziren eta liburuak aztertzen hasi ziren.

— Hauetan ez dator ezer. Ea! Atera! —agindu zion

gero. Mutilzahar ezkonberriak bere tresnatxoa atera zuen. Txiki samarra zeukan eta apaizak esan zion:

— Ah! Hori hiru hilabetekoa duk (da). Hau duk berderatzikoa.

KREDOA

Gertaera hau Zizurkilen jaso genuen, baina Errezilen gertatua da. Asteasuar batek Errezilen anai bat zeukan. Hara joan zen. Igandean txartel bila joan zen. Komunioa hartzeko, txartel bat behar zen. Apaizak ematen zuen txartela. Baina aurretik dotrina galdetzen zuen. Gizontxoa sineskorra eta txikia zen. Erretore zaharrarengana joan zen.

— Egun on, jauna. Txartela nahi dut.

— Kredo esango al duzu? —galdetu zion apaizak.

— Bai, jauna —erantzun zuen gizontxoak.

Baina ez zen hasten. Orduan apaizak kredoaren hasiera eman zuen:

— «Nik sinesten dut...»

— Baita nik ere! —esan zuen gizontxoak.

GAIZKI ETA SANO

Zizurkilgo gizon bat oso gaizki zegoen. Ohean zegoen. Semea joan eta galdetu zion:

— Zer moduz, aita?

— Gaizki. Baina zuk nahi bazenu, ni sendatuko nintzateke —esan zuen gizonak.

— Zer nahi duzu, ba?

— Ekar ezazu balde bete ur fresko.

Semeak ura eramán zion. Gizona ezin zen mugitu. Baina kontuz kontuz, burua uretan sartu zuen. Hantxe eduki zuen luzaro.

— Zertan ari zara, aita? —galdetu zion semeak, harriturik.

— Hau pasatu duk! —hotsegin zion gizonak, burua aterata.

Eta egia zen. Gizona sano zegoen.

HURRENGOAN LASAIAGO

Zizurkildar batek idi pareá saldu zuen Asteasura. Asteasu Zizurkilen ondoan dago. Idiak saldu eta uztarriarekin bueltan zetorren gizona. Zizurkilgo plazan lagun bat topatu zuen. Eguerdi aurrea zen. Biak berriketan hasi ziren. Tabernan sartu ziren eta eguna han pasatu zuten. Gaua ere bai. Hurrengo eguna ere han pasatu zuten. Baita bigarren gaua ere. Bi egun eta bi gau. Goizean, plazaren erdian, elkar agurtu zuten. Hauxe esan zion batak besteari:

— Beno, Batista. Hurren egokitzen garenean, lasaia-go egongo gara.

HAMAZORTZI EGUN TABERNAN

Beste zizurkildar bat behiarekin etorri zen. Behia zezenari ekarri zion. Zezen lana egin eta tabernara joan zen. Behia tabernako ikuiluan lotu zuen. Ohartu gabe, egunak pasatzen ziren. Tabernariak behiari belar pixka bat botatzen zion eta behia ere ez zegoen gaizki. Halako batean gizonak galdetu zuen:

— Zenbat egun dira?

— Hamazortzi —erantzun zion tabernariak.

— Hamazortzi? Honezkero, hogeita batak bete arte egon beharko dugu.

Behiak zezena hartu eta ernaritu ez bada, hogeita bat egun behar ditu, berriz zuzaratzeko. Horixe esan nahi zuen zizurkildarrak. Zertarako etxera joan, hiru egunengatik?

ARTOAK ERNETA

Beste zizurkildar batzuk ere marka polita egin zuten. Errekaldeko sagardotegian sartu ziren. Sartu zirenean, artoak ereiten ari ziren. Irten zirenean, artoak erneta zeuden.

Beste behin sagardotegiko nagusia asperturik zegoen. Ezin zituen gizonak sagardotegitik bidali. Alferrik zen haiei ezer esatea. Azkenean nagusiak zerbait asmatu zuen.

Salto jokoa asmatu zuen. Sagardotegiko atletik kanpora zeinek salto handiagoa egin. Batek egin zuen eta plast. Besteak ere bai. Baina beste bat atean jarri zen eta esan zuen:

— Nik egiten dudan pixka barrura egin beharko dut. Nagusiaren imentzioa alferrik izan zen.

SARRERA ETA IRTEERA

Zizurkildar batek tabernan bazkaldu zuen. Poliki jan zuen eta ederki jarri zen gizona. Kontua eskatu zuen. Pajera ikusi zuenean, esan zuen:

— Koño! Taberna honek zakurraren buztanaren antza dauka. Sarrera ederra eta irteera txarra.

BI MOZKOR ELIZARA

Bi zizurkildar mozkortu ziren. Biak elizara joan ziren. Gaua tabernan pasatu eta goizean elizara. Baina batako burduntzalia eskegi zion besteari kokotean. Burduntzalia koilare handi bat da. Biak elkarren atzean sartu ziren elizara.

— Goazen aurreko bankuetara —esan zuen burduntzalia eskegi zionak.

Besteak ez zuen kokotean ezer igartzen eta jarraitu

zion. Hura komedia armatu zena elizan. Bi gizonak laster nekatu ziren elizan, eta kanpora irten ziren. Plazan, bata piza egiten hasi zen. Besteak txapela ipini zion, piza hartzeko.

— Sekula ez diat (dut) pizontzi beltzik ikusi —esan zuen pizegileak.

— Neuk ere ez diat sekula porrurik ikusi, forru eta guzti —erantzun zuen besteak.

— Eskerrik asko.

— Ez duk (da) horregatik, eskuak epeltzeko baizik.

— Baita burua ere, txapel hori jazten baduk (baduzu).

— Burua bestela ere nahiko bero zeukeat (daukat).

— Goazen etxera, iristen baldin bagara.

— Goazen, bai, berriz etortzeko ere.

ZUMAIA - GIPUZKOA

GETARIARRA ZUMAIAN

Getariar bat San Pedroetan Zumaian zebilen. Gaupasan zebilen eta ez noski baraurik. Zueltsuneko aldapan emakume bati galdetu zion:

- Herri honetan ez al da aldapa besterik?
- Zeu nongoa zara, ba? —galdetu zion emakumeak.
- Getariarra.
- Han ere bada, ba, aldaparik ugari.
- Bai, baina dena aldapa behera.

JOANITO KANIKAS

Joanito Kanikas Urteagaren triplea izan zen. Urteaga hau apaiza eta musikoa zen. Zumaian egon zen. Joanito Kanikasek esaten zuen:

- Hura musiko ona, baina alu galanta.

— Zer, ba?

— Matrailekorik onena harexek eman zidan. Meza abestua zuzentzen ari zen. Ni ere koruan kantari. Amuaz azpiko emakume baten mantila jaso nahi nuen korutik. Urteaga ohartu zen eta matraileko ederra eman zidan.

Joanito Kanikas hiltzen zegoen. Arnasa gaizki hartzen zuen eta ito behar zuen gaixoak. Oxigenoa behar zuen. Lantegitik sopletearen bonbil haundi bat ekarri zuten. Medikiak graduatu eta mangera bat ahora jarri zion. Joanitok esan zuen:

— Hil egin behar eta musika jotzen ikasi behar al diagu? (dugu).

HILEN KAFETEGIA

Bi zumaiar mozkorturik zebiltzan kalean. Gau beran-
dua zen eta dena itxirik zegoen. Baina haiek ez zuten etxe-
ra joan nahi. Halako batean, argi bat somatu zuten atari
batean. Zerbait zegoen goian.

— Goazen horraxa! —esan zuen batek.

— Igon ahal badugu —erantzun zuen besteak.

Eskailerak igon zituzten. Goian jendea zegoen.

— Aurrera! —agindu zioten.

— Hau duk suertea! —esan zioten mozkorrek elkarri.

Aurrera joan eta jende gehiago zegoen. Gaubela bat
zen. Defuntua han zegoen. Ezker-eskuin kandela bana
zeukan.

— Hor daukazue —erakutsi zien norbaitek.

— Zer zarete zuek horrenak? —galdetu zuen mozkor
batak'gizalegez.

— Ez. Ez gara ezer —erantzun zioten.

Orduan beste mozkorrak esan zuen:

— Gu ere ez gara ezer, baina kafe bat hartzera etorri gara.

AGOAZIL ESANGINA

Zumaia Azpeitiko distrituan sartzen da. Han dago auzitegia eta abar. Zumaiako alkateak agoazilari esan zion:

— Bihar Azpeitira joan behar duzu.

Biharamon arratsaldean alkateak agoazila ikusi zuen eta esan zion:

— Atzo esan nizun, ba, Azpeitira joan behar zenuela.

— Bai. Goizean izan naiz —azaldu zuen agoazilak.

— Nola baina, ez bainizun zertara esan? —galdetu zion alkateak harriturik.

— Joateko esan zenidan eta joan naiz —erantzun zuen agoazilak.

Huraxe izan zen «bidea bai, mandaturik ez». Eta dena oinez.

ARTADIKO APAIZ INDARTSUA

Duela berrogeiren bat urte, Artadiko San Migelen, bazen apaiz indartsu bat. Zortzi arroako zahagia eskumuturrean jarri eta sinadura botatzen zuen. Burdinazko ma-

kila zeukan, bost kilotakoa.

— Azeitunak jateko —esan zuen Karlosek, berri hauek batzen ari ginela.

Apaiz hark elizarako hainbat zaletasun ba omen zeukan indarrerako. Elizkizunetan edo otoitzetan «Jainko indartsua» esatea tokatzen zenean, ahoa betean esaten omen zuen. Otxoarekin, gelaren batean eta ezkutuan, indarrak probatua zen burruka librean. Ez omen zuten elkar bentzitu.

URA, URA!

Errementaldegi batean lanean ari ziren. Une hartan, ordea, berriketan ari ziren. Kontu kontari ari ziren. Arduraduna (enkargatua) etortzen ikusi zuten eta batek esan zuen:

— Ura! Ura!

Gizon batek kurrikekin burdina gorria hartu eta uretara bota zuen. Eta beste batek eskuekin heldu zion, zerbait egiten zuela emateko. Gauza ederrari heldu zion gaixoak.

ILEA NOLA?

Bizarginek berritsu fama daukate. Zumaiar bizargin hark fama hori ondo merezia omen zeukan. Gizon bat bizartegian sartu zen.

- Eseri! —agindu zion bizarginak, eta berriketan hasi zen.
- Nola nahi duzu ilea moztea? —galdetu zuen gero.
- Isil isilik —erantzun zuen gizonak.

ARTADIKO APAIZA

Artadiko San Migel Zumaia gainean dago. Zumaia-ko auzoa da gaur udalez. Bazen han apaiz famatu bat. Baserritarrak gogor tratatzen omen zituen. Haundiki zalea omen zen. Politikaz berriz errejimen zalea. Erdaraz ere noiznahi egiten omen zituen sermoiak. Behin sermoia egiten ari zen elizan eta bat-batean esan zuen:

— Mutil koxkor horri saihetsak hausten dizkionari, neuk pagatuko diot klinika.

Mutiltxo bat bizikletan zebilen kanpoan eta kirrin-kirrin hotsa ateratzen zuen. Gero apaizaren arrebak kanpora irten eta mutikoari esan zion:

— El señor cura está irritadísimo y que no toque el pito.

OILAR BAT

Neska-mutil talde bat Artadira joaten hasi zen. Toki ederra izan ere hura. Egun batzuk han egiteko asmoa zeukaten. Oraindik gazte samarrak ziren. Talde edukatiboa zen eta ez parrandara zettorrena. Baina apaizak ezin zuen ikusi neska-mutilak batera etortzerik eta esan zien:

— Oilategi batean oilar bat nahikoa da eta hemengo oilarra neu naiz.

Beste behin hauxe esan zuen sermoitan:

— Gure bizitza hutsa da. Haritik zintzilik gaude. Jainkoak nahi balu, klas! Moztu eta behera. Nik Martin Txiki jotzea bezala.

Apaiza haundia zen. Martin Txiki eliza barruan zegoen. Gero kanpoan apaizaren zain zegoen, oso haserre.

EN HONOR A LOS VISITANTES

Apaiz honek igande askotan erdaraz egiten zituen sermoiak. Behin industrigizon bat bisitatzeraz etorri zen. Hura ere han zegoen mezan. Apaizak honelako sermoia egin zuen:

— *En honor a los visitantes voy a hablar en castellano. Ya les digo yo a estos caseros que no solamente se*

trabaja con la azada, con la guadaña, con el hacha (eta honela erreminta pila bat), sino que hay gente que trabaja con camisa blanca y corbata.

ARTADITIK URDANETARA

Apaiz hura gero Urdanetara aldatu zuten. Urdaneta Zarauztik gora dago. Garai hartan Luzia eta Gartziarena haizkolariak ziren. Apustu handiak egiten ziren. Apaiza zerbait esplikatzen ari zen sermoian. Eta adibide bezala, esan zuen:

— Esate baterako, Luziaren alde hogei eta Gartziarenaren alde hogei...

— Bai! —heldu zion korutik batek.

APAIZAREN MEHATXUA

Apaiz hau meza ematen ari zen Urdanetan. Jai goiza zen. Bezpera gauetz, gazteak eskean ibili ziren. Gau guztia kantatzen egin zuten, etxerik etxe. Santa Ageda edo Gabonak edo horrelako zerbait. Goizean zuzen joan ziren mezara. Lorik egin gabe eta nekaturik. Baita erronda giroan ere. Gazte haiek ez zeukaten mezan arreta handirik. Koruan berriketan ari ziren. Orduan aldarera begira meza ematen zen. Apaizak eztul egiten zuen. Gazteak mar-

mar eta apaizak eztul. Halako batean, apaiza jiratu zen eta esan zuen:

— Ni joaten banaiz hor gora, ez dira denak jaitsiko eskaileretan behera.

— Etor hadi! —erantzun zion mutil batek korutik.

EZKONBERRIAK

Bi zumaiar ezkondu ziren. Eguna larri pasatu zuten. Baina gizona pozik zegoen gaez. Beren lantxoa egin zuten eta gizonak esan zuen:

— Hau da gauza, Joxepa!

— Gustatu al zaizu, ba? —galdetu zion andre gazteak.

— Horixe! Donostian honegatik berrogei duro pagatzen dute.

— Bai?

— Bai horixe!

— Orduan beheko Joxe harotzak zenbat zor dit niri?

TOTELA ETA TOTELA

Zumaiar bat Donostiako tren geltokian zegoen. Totela zen bera. Takilara joan zen eta galdetu zuen:

— O-o-oiga! A-a qué hora sa-sa-sale el tren de Zuzu-maia?

— A-a las cu-cuatro y me-media —erantzun zion takilakoak.

— Ho-ho-hostia! De-de mí no-no se ríe na-na-nadie. Eta danba eman zion ukabilkada. Takilakoa ere to-tela zen.

SANTUGILE ONA

Gizon bat lantegi batera joan zen eta galdetu zuen:

— Langile onik behar al da hemen?

— Zuk zer egiten duzu, ba? —galdetu zion nagusiak.

— Nik santuak.

Zura eman zioten eta gizona lanean hasi zen. Gero enkargatua etorri zen eta harritu zen. Dena zen txirlora han. Egur puskatxo bat bakarrik geratzen zen. Enkargatuak esan zion:

— Hik ez duk (duzu) hortik santurik ateratzen.

— Ezetz? —hotsegin zuen langile berriak—. Hor barruan baldin badago, irten beharko du oraintxe.

AURKIBIDEA

Abadiño-Bizkaia	5
Ahetze-Lapurdi	11
Ariatza-Bizkaia	13
Arrasate-Gipuzkoa	17
Arteaga-Bizkaia	21
Ataun-Gipuzkoa	25
Aulestia-Bizkaia	31
Baigorri-Nafarroa Beherea	35
Bera-Nafarroa	39
Berriatua-Bizkaia	43
Dima-Bizkaia	47
Elgeta-Gipuzkoa	53
Elorrio-Bizkaia	59
Ereño-Bizkaia	63
Ezkio-Gipuzkoa	69
Gabiria-Gipuzkoa	73
Goizueta-Nafarroa	75
Heleta-Nafarroa Beherea	81
Iholdi-Nafarroa Beherea	83
Lauro-Bizkaia	87
Lazkao-Gipuzkoa	91
Oiartzun-Gipuzkoa	95
Ortzaize-Nafarroa Beherea	105
Zaldibia-Gipuzkoa	109

Zeanuri-Bizkaia	113
Zeberio-Bizkaia	117
Zegama-Gipuzkoa	121
Zumaia-Gipuzkoa	125
Garizuma	129

EUSKARA BAT

Albistur-Gipuzkoa	133
Arrasate-Gipuzkoa	139
Asteasu-Gipuzkoa	145
Azpeitia-Gipuzkoa	155
Goizueta-Nafarroa	161
Izurtza-Bizkaia	165
Mallabia-Bizkaia	171
Mendaro-Gipuzkoa	183
U.E.U.-Iruñea	189
Zizurkil-Gipuzkoa	195
Zumaia-Gipuzkoa	205



EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S. A.

Esterlines, 10
Tf. 426319
Donostia

Pannecau, 52
Tf. 254390
64100 Baiona